

MILAR LARRAMENDI



Julia Urkixo etorb. 16 | AZKODITIA
Tel. 943 85 18 97



Xabier Munibe 11 (Liburutegi ondoan) | AZKODITIA
Tel. 943 85 00 41 www.sukaldeak.eus

www.milar.eus

IRRIBARRE HANDIENAK ZAITZEN DITUGU

HORTZ INPLANTE ETA
PROTESIETAN ADITUAK
GARA.

*Erraztasunak
ordainketan.

Jose Arletxe kalea 5
(Anbulatorio ondoan)
20730 Azpeitia

☎ 943 02 59 55



INNOVA

uztarria

Argitaratzailea. Urolako Komunikazio Taldea Koop. Elk.
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa. uztarria@uztarria.eus
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. ISSN 1576-7337
Zenbakia. 221.a (2019ko azaroa)
Urtea. XX.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 / uztarria@uztarria.eus
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Iñaki Martinez Webgunea.

www.uztarria.eus

Uztarria herri aldizkariaren laguntzaileak



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

||| 2019KO AZAROKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||



04



16



24

iritzia

Inkesta. Gaztainak jateko ohiturarik ba al duzu? **13**

mamia

Elkarrizketa. Louise Desiree Florindo berak idatzi duen autismoari buruzko liburuaz aritu da solasean **04**

Klik! Burdinbidearen Euskal Museoaren 25 urteak, argazkietan **16**

Erreportajea. Adin ezberdinetako gazte ugari elkartzen da Garmendikamp gunean, dirt jump kirola praktikatzeko **24**

Elkarrizketa. Euskal Wikilarien Elkartean ari da lanean Edurne Agirre azpeitiarra **34**

Ba al dakizu uztarriak dinamoa sormen gunean izango duela bulego berria azaroa bukatzerako? Uztarria

Izan uztarriaren bazkide 943 15 03 58

Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide **gara** Uztarria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro **dira** urtean.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta...

LOUISE DESIREE FLORINDO

‘Luan, autismoa duen haur berezia’ liburuaren idazlea

“gizartea prestatzea da autismoaren botika”

Autismoaren gaia gizarteratzeko asmoz, liburu bat idatzi du Florindok, bere seme Luan Madariagarekin izan duen esperientzian oinarrituta. 📝🗨️ Ihintza Elustondo

Mun-
dua goitik behera”. Halaxe erori zitzaien Louise Desiree Florindori semeak autismoa zuela jakin zue-
nean. Zailtasunak zailtasun, urte-
ek irakatsi diote pazientziarekin
eta jarraikortasunarekin gauzak
lor daitezkeela. Ikasitakoa *Luan*,
autismoa duen haur berezia liburu-
an jaso du, antzeko egoeran
egon daitezkeenei laguntzeko.
“Hau loteria bat da, edonori toka
dakioke”.

Zergatik jaso duzu zure esperientzia liburu batean?

Ikastolako ariketa bat izan zen sorburua. Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegaraira joaten da nire seme Luan, eta ikastola horretan, 5 urteko haurrek ariketa bat egiten dute: ume bakoitzak eta

haren gurasoek liburu bat irakur-
tzen dute etxean, eta egun bate-
an, haurra gurasoekin joaten da
ikastolara, ipuin hori beste umei
kontatzera. Baina Luanek ez du
hitz egiten, eta beraz, ezin zuen
ipuina kontatu. Horregatik, irak-
asleek esan zidaten ea zergatik
ez genuen zerbait ezberdina egi-
ten. Autismoaren inguruko liburu
bat irakurtzea eta istorioa neuk
kontatzea proposatu zidaten. Ira-
kurri nituen liburu batzuk, baina
ez ninduten konbentzitzen, eta
beste zerbait egitea pentsatu
nuen: umearen inguruko ipuin bat
idatzi nuen, eskolako umei Luan
nolakoa den azaltzeko. Elkarbizi-
tza tarteko, ikaskideek bazekiten
nolakoa den Luan, baina beti
sortzen zitzaien zalantza: “Zer

|||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1979ko martxoak 30.

|||**Herria.** Curitiba, Brasil.

|||**Bizitokia.** Azpeitia.

|||**Lanbidea.** Ingeniari lanak utzi
eta semearen zaintzaz
arduratzen da.

dauka Luanek?”, galdetzen zuten.
Horregatik, ipuinean Luanen his-
toria guztia jaso nuen: Luanen bi-
zitzan autismoa nola agertu zen
idatzi nuen, baita nire semeari
beste umeen errutina bera izatea
galarazten dioten autismoaren
ezaugarriak zeintzuk diren ere.

Zer eragin izan zuen ipuin hori kontatzeak?

Oso polita izan zen egun hura;
umeak asko emozionatu ziren.
Luanen garuna ezberdina dela
eta beste modu batean pentsa-
tzen duela azaldu nien, haren

neuronak beste modu batera haz-
ten direla. Horri autismoa deitzen
zaiola kontatu nien, eta inpaktu
oso handia izan zuen horrek.
Haurrak zera hasi ziren esaten:
“A! Orduan horregatik da Luan
horrelakoa”. Ipuinak izan zuen
eragina ikusita, gelaz gela konta-
tu zuten istorioa irakasleek, eta
zoragarria izan zen emaitza.

Zer gertatu zen?

Luanek ez du futboleko jokatzeko
baina agian, jolastokira ateratze-
an, baloia kentzen zien futboleko
ari zirenei. Egoera horren aurre-
an, beste umeak mindu egiten
ziren lehen, baina ipuina etzun os-
tean, jarrera ezberdina hartzen
hasi ziren. “Lasai, Luan da, eta ez
ditu gauzak guk bezala ulertzen”,
esaten zuten. Ume batek bestea-



ri azaltzen zion nolakoa zen Luan, eta ikastolan denek ezagutzen zuten. Orduan, pentsatu genuen jende gehiagori kontatu behar zitzaiola istorioa. Ez dugu aniztasun funtzionala duen norbait ikasgelan tokatu arte zain egon behar gaia lantzeko; izan ere, ume asko dira antzeko arazoren bat dutenak. Luani autismoa diagnostikatu ziotenean, 900 autista ziren Gipuzkoan; orain, 2.000 bat dira. Hazten ari da kopurua. Azpeitian, sei haur autista badirela uste dut. **Zerk eragiten du autismoa?**

Autismoa nahasmen neurobiologikoa da, gizakiaren bilakaeraren alderdi askori eragiten diona. Ez dauka sendabiderik, ezta jatorri jakin bat ere. Kasu askotan, faktore genetikoek eragin dezakete, baina faktore biologikoen artean kutsadurak, esaterako. Baina gaur arte, azterketa asko egin ba-

dituzte ere, ez dago esaterik zerk eragiten duen nahasmena. Luanean azterketa genetiko guztiek emaitza normalak eman dituzte, baina autismoa du. Ikusezina da autismoa, baina diagnostikatzeko ere. Egun, umeek dituzten antzeko ezaugarriak kontuan hartuta diagnostikatzen dute autismoa. Autismoa duen ume bakoitza mundu bat da, baina badituzte antzeko ezaugarriak.

Zer ezaugarri, esaterako?

Ezaugarri nabarmenena komunikatzeko zailtasuna edo erabateko komunikazio gabezia da. Kontua da autisten neuronek desberdin funtzionatzen dutela: gauza batzuetarako zailtasunak dituzte, eta beste gauza batzuetarako sekulako trebeziak. Batzuek sekula ez dute hitz egitea lortzen, eta sekulakoak egin ditzakete matematiketan edo mugikorrek. Deso-

reka moduko bat da. Gainera, gizakioi umetan neurona batzuk hil egin ohi zaizkigu, baina autismoan pertsona ez; horregatik, sekulako memoria dute. Informazio gehiegi izan ohi dute, eta horrek zirkuitulaburrak eragiten dizkie. Bestalde, erasokorrek izateko joera dute: 2 urteko ume batek amari iletik tira diezaioke, baina zuzendu egiten zaio hori, eta gero ez du egiten; baina autismoa duten umeak askotan ez dira hori ulertzeko gai, eta 2 urteko umeen jokabidea izaten jarraitzen dute. Gainera, krisi egoerak izan ditzakete, gertatzen zaiena azaltzeko gai ez direlako. Era berean, ume askok hesteetako arazoak izaten dituzte; Luaneke baditu. Nire semeak, gainera, lo egiteko zailtasunak ere baditu. Autismoak pertsona baten garapenean oztopo asko eragiten dituen arren,

alde politak ere baditu. Luaneke hitz bat esatea lortzen duen bakoitzean sekulako poza hartzen dut. Haurra garatzen ari dela ikustea zerua ukitzea bezalakoa da.

Noiz jakin zenuen Luaneke autismoa zuela?

Umeak ia 4 urte zituela. Baina 2 urte zituela hasi ginen azterketetan, zer gertatzen zitzaien jakiteko. Bi gauza zituen: ez zuen hitz egiten eta lo egiteko arazoak zituen. Txikitari, ume normal-normalak: jan egiten zuen, jantzi egiten zuen, begietara begiratzen zuen... Hori bai, berezitasun batzuk zituen, maniak: beti txupete bera nahi zuen, beti gauzak era berean ordenatzen zituen... Baina ez duzu pentsatu ere egiten hori autismoa izan daitekeenik. Eta pixkanaka, autismoa garatzen joan zen heinean, sintoma areagotzen hasi ziren: jateari

utzi zion, lehengo jostailuekin ez zuen jolastu nahi, autoan sartzean botaka egiten zuen... Izugarriko abiaduran hasi zen autismoa garatzen. Dena den, adin bat iristen da zeinetan autismoa ez den gehiago garatzen: batzuk 7 urterekin egonkortzen dira, beste batzuk 4 urterekin, beste batzuk nerabezaroran...

Zer egin zenuen umeak autismoa zuela jakitean?

Nafarroan, Gipuzkoan, Bizkaian... ibili naiz, eta denetarik egin dut. Autismoa lantzeko metodo bakarra dago: terapiak egitea. Baina nire semeak ez zituen terapiak onartzen, eta horrek sekulako frustrazioa eragiten zidan. Horregatik, nik ikasi nuen nola lan egin autismodun umeekin. Formakuntzak egin nituen, Luani ariketa inklusiboak neuk irakasteko, baita piktogramekin nola lan egiten den ikasteko ere. Hitzek komunikatzeko zailtasunak dituzten per-

“Beste batzuei laguntzeko jaso dut paperean nire esperientzia”

“Autismoa onartzea eta gizarteratzea nahi dugu”

tsonek komunikatzeko baliatzen duten modua da piktogramena; irudi bidez komunikatzen dira.

Zer jaso duzu liburuan?

Bi atal ditu: aurrez aipatutako ipuina eta unitate didaktikoa. Unitate didaktikoan, metodo zientifikoetan eta homologatuetan oinarrituta, jarraibide batzuk ematen ditut autistekin nola lan egin jakiteko. Diagnostikoa jasotzean, mundua erori zitzaidan. Eta horregatik, nire esperientzia paperean ipintzea nahi nuen, argi eta sinple, beste gurasoei, familiei, irakasleei eta hezitzaileei laguntzeko.

Zer esango zenioke zure egoera berean dagoen guraso bati?

Esperantza badagoela. Ez dago sendabiderik, baina badago autismoa tratatzeko modu bat, eta oinarria da pazientzia eta jarraitkortasuna. Iritsiko da egun bat gehiago ezingo duela pentsatuko duena; halakoetan, deskantsatu, eta bihar berriz hastera. Semearengandik ikasi dudana da ez dugula etorkizunaz kezkatu beharrik, min gehiena ematen duena hori baita. “Nork zainduko du? Noiz arte garatuko du autismoa? Eta atzerakada bat izaten badu?” bezalako galderak egiten hasten bada, ezingo da bizi. Gaurko egunean orainean pentsatu behar da, bestela, erotu egingo da. Umea gaur gaizki egon bada,

bihar ondo egongo dela pentsatzea da botika, ez dago besterik. Agian, hamabost egunez segidan ez du eskolara joan nahiko, baina hamaseigarrengoa onartuko du. Badago irtenbidea.

Ez etsitzea da bidea?

Bai, horixe da eman nahi dudana mezua. Eta ez da etxean gelditu behar; izan ere, batzuek bide hori hartzen dute. “Zergatik eraman behar dut umea eskolara, han gaizki egongo bada eta ez badu irakurtzen eta idazten ikasiko?”, pentsatzen dute. Baina ikas dezakete. Eta laguntza eskatu behar da, beti egongo da norbait laguntzeko prest dagoena. Umeak kasketaldia izango duelako edo azokara joan eta produktuak botako dituelako, ez daukagu haurra kalera ateratzen lotsatu beharrik. Jendeak hori ikusteko prest egon behar du. Eta noski ematen duela lotsa; niri hasieran sekulako lotsa ematen zidan, baina orain barre egiten dut. Kalera irten, borroka egin eta gizartea prestatu behar da. Autismoaren botika gizartea prestatzea besterik ez da.

Zer jakin behar du gizartek?

Kalean ume bat kasketaldia izaten ikusten badugu, jende asko sartzen da tartean, gaizki hezitako umea dela esanez. Halakoetan, pentsatu umeak zerbait izan dezakeela. Gurasoak gaizki pa-

“Gipuzkoan 2.000 bat autista daude gaur egun; hazten ari da kopurua”

“Autismoak ez du sendabiderik, ezta jatorri jakin bat ere”

satzen ari badira, galdetu laguntzea nahi al duten, eta esango dizute baietz edo ezetz. Haurra krisi bat izaten ari bada, zer egin? Modu inklusibo batean onartu. Ume autistek zarata bat egin ohi dute, eta pozik daudenean egiten dute hori, normalean. Zarata hori entzutean, ez egon beste munduko zerbait balitz bezala begira. Kuriositateak eragiten du hori, baina pentsatu zuri ere toka dakizukeela. Autismoa onartzea eta gizarteratzea nahi dugu. Kritikak, burlak, barreak... entzutea beldurgarria da.

Non eskura daiteke liburua?

Marea Urdinaren eta Azpeitiko Udalaren laguntzarekin kaleratu dugu lana, eta ikastetxeetan, pediatrien kontsultetan nahiz terapia zentroetan eskura daiteke. Gainera, norbaitek liburua nahiko balu, nirekin harremanetan jar daiteke, louisedesiree.1df@gmail.com helbidera mezu bat idatzita.*

BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza zaharberritzea nahi duzu?



Erositako etxebizitza eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

Abendaño poligonoa, 2
Tel. 943 135 016
Zarauz

Santiago auzoa, 12
Tel. 943 343 443
Zumala

San Juan, 16 edif. AOR1
Tel. 943 802 111
Azkoitia

Gesolaga Kalea, 18
Tel. 945 148 241
Zestoa

Biziminak

Hemen da azaroa, heriotza eta iluntasuna ekartzen dizkigun hilabetea. Orduaren aldaketak negua nahi baino lehen helarazten digu, eguna motz geratzen zaigu eta barruetako goxotasuna bilatzen dugu; suaren abaroa noraezak guztiz irentsi ez gaitzan.

Hilerriak loratzen ditugu. Halloween, Aritmen Eguna edo Gaba Beltza; begien aurrean nahi ez dugunera gerturatzeko moduak. Nahi gabe joaten zaizkigu inguruak, eta gizakiak nahi adina aurrerapen asmatuta ere, heriotzari izkin egiterik ez. Horixe guztiok zain dugun patua, noizbait iritsiko garela ziurtasunez dakigun helmuga bakarra.

Dolua, ezina, mina; maite dugunaren hutsunea errailetan, baina bizitzak beti aurrera egina-razten digu. Hil hurrean gaudenean ere maitasuna nagusitzen omen zaigu, baina galera handia da, eta gizakiok ez dugu maite galtzea, are gehiago geure bizitza dela badoana nabaritzen dugunean.

Une oro ari gara galtzen, baina etengabe ematen zaigu hasteko aukera berri bat. Ondoa ditugunak zaintzea, harremanak ureztatzea, ez ote daukagun aberastasun handienetako bat. Hil artean bizi, uneaz jabetu, goxatu eta goxarazi; ez dago besterik.

Babesa galtzen dugu. Aita, ama, aitona-amonak, ingurukoren bat galtzeak beldurra ematen digu. Barren-barrean daramagun, bakarrik, babesik gabe geratzeko antzinako beldurra azalarazten zaigu, eta zapaltzen dugun lurra dardarka sentitzea, norberaren barruan arrakalak sortzen ikustea ez dugu batere maite. Bizitzak horiek ere bereak ditu baina.

Agur esatea

Ez da erraza, bizitzak zentzuren bat badu behintzat, zure ondokoaren gaixoaldia nahiz heriotza zentzu horren baitan sar daitezkeela onartzea. Ulertu ezinezkoa da guzti horretatik pasatzeak logikaren bat eduki dezakeela pentsatzea. Eta halako egoera latzek ikas-



|||||olatx aranguren|||

|||Jendearen goxotasuna zaizu beharrezko, baina aldi berean, inorekin egoteko moduan ez



gaiak ematen dizkigute, azalberitzen gaituzte. Bizitzaren absurdoa. Bizi izanaren edertasuna.

Gehienetan ustekabekoa da agur esatea. Norbait gaizki dagoela jakinda ere gorantz bultzatzen gaituzte aingurek. Prestatzen joaten zara, badakizu etorriko dela. Baina hala ere...

Lasaitasuna transmititzea, joaten uztea aipatzen dira sarri. Izu ikaragarria ematen zidan aitak bere ama hiltzear zela ondoan nola egon zen kontatzen zidanean. Ez nuen pentsatu ere egin nahi halako egoera bat bizitzea tokatuz gero ondoan egoteko gai izango ote nintzen.

Ikusi egin nuen itzaltzen ari zela. Ez nuen pentsatzen hain azkar joango zenik. Zotinka ateratzen nintzen ospitaleko gelatik komunera joateko aitzakian. Eta lasaitutakoan itzuli. Ez zen erraza hori guztia bizitzea, baina aldi berean, orduan sentitutako maitasun ikaragarria, patxada, gauzak behar bezala gertatzen ari ziren segurantzia... deskribaezinak zaizkit.

Anputazioak. Fisikoki gurekin ez egonda ere ondoan sentitzen ditugunak. *Ondoloin* goxo batez agurtu nuen agurrak hartzen zuen pisuaz unean gehiegi jabetu gabe. Heriotzari bizkarra emanda bizitzen saiatzen gara. Dagoeneko Elizak ez digu erantzun lasaigarrik eskaintzen. Paradisuak oporretarako nahi ditugu, bizitza osoaren sufrimendua jasateko obligaziorik gabe.

Jendearen goxotasuna zaizu beharrezko, baina aldi berean, inorekin egoteko moduan ez. Kontraesanak, mina, errailetatik erauzitako zeure zeurea sentitzen zenuen atala. Berriro bizitzen ikasi behar.

Badator, bai, azaroa, naturan iluntasuna gailentzen den aroa; kolorerik, fruiturik preziatuena eskaintzen dizkigun urtaroa, eguzkiak urruntasunetik argirik estimatuena luzatzen diguna.

Bizitza izan zaigu emana eta geuri dagokigu ahalik eta ederren ziprztintzea. Malkoz nahiz irribarrez, eskaintako aukera bakoitza eskertuz. Maitatuz. Biziminez.*

Kritika kriminala

Kezka sortzen dit azken boladan inguruetan dabilen joera batek. Giro intelektualen aurkako purrustadak eta gutxiespenezko keinuak sumatu ditut, eta bizi gaituen jendartearen erradiografia moduan irakurri nahiko nituzke. Intelektualtasunaren kriminalizazioa ematen da epaiketa pertsonalisten bitartez, eta horrekin, proposatzen diren tesiak balio gabetzeko ahalegin bat ikusten dut. Inoren ustez, pertsona kritikoak predikatzen duenetik bestelako edozer eginez gero, zaparrada datorkio; arimaren purutasuna exijituko baliote bezala. Nago epaiketonton jopuntua ez dela hainbeste intelektualen aurkakoa, ez bada, pentsamenduaren beraren aurkakoa; pentsamenduak guztiok interpelatzen baikaitu, eta deserosotasunera behartzen. Beraz, ezinago erreazionarioa da fenomenoak, eraldaketarako bideak gutxies-ten dituen unetik.

Kurioso da “espiritu kritikoa” eta “jende autonomo eta independentea” bezalako profila etengabe goratzen diren garaiotan ematen den fenomenoak dela aurrez aipatua. Militantei eta “bustitzen” den jendeari ematen zaion egurrak kritikotasunaren ulerkera orokorra zein ote den hausnartzera narama, ezinbestean. Esango nuke, kritikotasuna entzuten, irakurtzen, hautematen edo jasotzen dugun oro zalantzan jarri eta informazio horren gaineko deskonfiantza erakustearekin lotzen dela; estimuluak norbere galbahetik pasatzearekin, nolabait. Tebistako debate- etako tertulianoek “gizarte demokratikoen” oinarritzko premisatzat jotzen dute hiritarren kritikotasuna. Ajatzeraino maiztu duten “demokrazia” kontzeptuak eskuetatik ihes egiten badit ere, interesatzen zait kontzeptua zein edukirekin betetzen den.

Irudipena daukat “adierazpen askatasun” deituaren miseria errazkeriaz eta esaten dugunaren ardurari muzin eginez aritzea dela, kritikotasuna norbanakoen eszeptizismo zein erlatibismoarekin nahasten dugula askotan,



|||||||jon gurrutxaga|||||||

|||Euskal kulturari opa diodan azkena da itxuraz kritikoa den eta oinak lokazten ez dituen musika, literatura, bertsolaritza...



eta kritika, praktika serioa bainoago, gatazka egoeretan ahalik eta posizio erosoena hartzea dela gaur egun. Edonorentzat etxeko izan daitezkeen esaldiak har genitzake jarre-ron erakusletzat: “Ni ez nago; ez hauekin, ez horiekin”, “ez diet sinesten; ez batzuei, ez besteei” edo denetan apurtzaileena den, eta nire ustez, *top-topean* dagoen “nik ez daukat ideologiarik”. Ehuneko ehunetan ildo edo korronte jakin baten interpretazio ororekin bat ez egiteak –ia ezinezkoa dena, gizaki gehienok baitauekagu geure alde profanoa– ez luke izan behar zalantza zoko posizioak hartzeko edo eskuak garbitzeko aitzakia. Gehiago diot, hori kritikotasunaren guztiz aurkako jarrera da. Zerbait edo norbait –beraz, zerbaiten edo norbaiten aurka– defendatzea da kritikoa izatea. Ekimen individual hutsetik harago lihoakeen jarrera, proiektu kolektibo bati legokiokeena.

Kultur munduaz bi hitz

Gai honi azken ertza ateratze aldera, kultur munduaren epelkeria salatu nahiko nuke. Barkatuko didate –edo ez– idazleek, bertso- larek, musikariek eta, oro har, kultur gileek, baina gure kulturaren mundutxo honetan erabateko joera somatzen dut –lurretik metro batzuetara ezarritako beiratetik ariko bagina bezala– erraz eta asko jarduteko, inorekin le-rratu beharrik gabe, eta lerratzekotan, gai ba-koitzean komeni denaren alde eginez. Euskal kulturari opa diodan azkena da itxuraz kritikoa den eta oinak lokazten ez dituen musika, lite-ratura, bertsolaritza... Izan ere, sorkuntzak, iritzia emateak bezalaxe, inplikazio politikoak ditu, batzuetan injustuak eta pertsonalki oso gogorak izan daitezkeenak. Inor ez da ukiezi-na. Ezin dugu kulturaren eraldaketarako po-tentziala gure erosotasunaren arabera mol-datu. Kultura infantilizatzea litzateke; muni-ziorik gabe uztea.✘

Talasoterapia



Ongizatea eta osasuna
Zelai talasoterapian



Etorri eta gozatu gure fitness
zirkuituaz eta ditugun menu berriez.

Sukalde berritua:


Eguneko menua, astebukaerako menua,
karta, bi lagunentzat mariskada, arrozak,
paellak eta menu begetarianoa.

ITZURUN HONDARTZA Z/G-20750-GIPUZKOA
TELEFONOA: 943.86.51.00
Erreserbak: reservas@talasoterapiazelai.com
www.talasoterapiazelai.com



HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Bada ikasteko aukera

Euskara Patronatuak sei mailatako ikastaroak jarri ditu martxan, eta guztira, 96 lagunek eman dute aurten izena. Mintzapraktika saioak ere hasi dituzte euskara praktikatu nahi duten herritarrek.  Julene Frantzesena

Dagoeneko martxan da 2019-2020 ikasturtea Azpeitiko Euskara Patronatuan. Aurten, Udal Euskaltegiak eskaintzen dituen maila guztietan osatu dira taldeak; hain zuzen ere, 96 ikaslek eman dute izena A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailetan, eta ikasle horiekin hamar talde osatu dituzte.

Azpeitiko Udalak urtero-urtero antolatzen ditu euskara ikastaroak, eta horiek harrera ona izaten dute. Dena den, aspaldiko urteetako ikastaro kopuru handiena osatu da aurtengoan. Ikastaro horietan izena ematen duten azpeitiarrek, gainera, hobariak eskuratu ahal izaten dituzte: ikasleek ikastaroak doan egiteko aukera dute, gutxienezko saio kopuru jakin batera joanez gero.

Mintzapraktika saioak

Patronatuko euskara ikastaro horiez gain, herritarrek

badute euskara praktikatzeko aukera. Izan ere, herritar talde batek mintzapraktika saioak antolatu ditu aurten ere.

Euskaraz hitz egiteko gaitasunaren arabera, hiru mailatan banatu dituzte saioak: euskaraz hitz egiteko gaitasun handirik ez dutenek astearteetan izango dute praktikatzeko aukera (17:00); maila ertaina dutenek, asteazkenetan (18:00); eta maila altua duten herritarrentzat saioak astelehenetan eta asteazkenetan 17:30ean, eta ostiraletan 10:30ean izango dira. Saio guztiak igerilekuaren eraikinean kokatuta dagoen Sanjuandegiko auzo lokalean egingo dituzte.

Mintzapraktika saioetan parte hartu nahi duten herritarrek 685 72 02 72 telefono zenbakira deitu beharko dute ikastaro horietakoren batean izena emateko.*



Udal Euskaltegiko ikasleek duela bi urteko Euskararen Egunean egin zuten txokolatadako irudia.  Uztarrria



Josu Labaka.

ESANA DAGO

“Etorkizunean, herri bezala, munduaren aurrean euskaldun agertuko al garen dago jokoan”

JOSU LABAKA
Uemako lehendakari ohia

“Helburua da lehen fasean goiko multzoan sailkatzea, horrela mailari eustea bermatuko genukeelako”

“Etxeko taldeak dira ISB eta gisa horretako taldeei zentzua ematen diotenak”

IÑAKI JIMENEZ
Juaristi ISB taldearen entrenatzailea

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

 **Aiortza Autoak**

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiortzaautoak@telefonos.net

MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Busti

Nuabeko urtegia da neurgailu egokia. Astebete euririk egin gabe husten den hori eta arratsalde bateko xirimiriak gainezka uzten duen horixe. Putzu latza dirudien arren, ba omen dira xapoon herrian, larunbat gau bakar batean, garagardo putzu handiagoak edaten dituztenak; eta ez bat eta ez bi, dozenaka.

Pentsatzen hasita, burua bueltaka jarrita (garagardo putzurik gabe), klima larrialdiaren ondorioena izugarria da. Giza harremanetan ere bai. Susmo sendoa dut gero eta lehorragoak gara (baietz, ni neu neroni aurrena).

Busti ere gero eta gutxiago bustitzen gara, erabakiak hartzeko unean beste norbaitek urrats bat aurrera egin eta erabakia hartzen badu, erosoago sentitzen garelakoan nago. Busti ere gero eta gutxiago bustitzen dugula seguru nago. Bi datu (egia ala gezur, nire teoria indartzeko balio duten bi datu): gero eta haur gutxiago jaiotzen da eta irailean banandutako bikoteen zerrenda luzea ahoz aho dabilkigu (zenbat gustatzen zaigun besteen bizitzak konpontzea). Krisia, estresa, dena delakoa, gero eta tiro gutxiago.

Eta zintzurra orekaz bustitzearena ere,



txetxu urbieta

akabo. Orain asko ez, gorputza orekaz bustitzen genuen. Goizeko anixa, bazkalosteko kafe konpletoa eta afalaurreko txikiteoa. Orain, kolpeko erauntsia. Aste osoa kiroldegian izerdi zikina botatzen pasatu ondoren, larunbat gauean, kolpetik, tanta hotza, aurrean topatutako dena di-da hustu beharra, hurrengo egunean argituko ez balu bezala... Eta argitzen du, kopeta ilunarekin eta aje latzarekin (hori guztia kontatu egin didate, nik neuk ez dut ikusi).

Donald lagunaren txioaren zain geldituko naiz.✘

IKUSTEKO!



▲KATAGORRIA, BERE USTEZ, EZKUTATUTA.

Herritar batek Urrestilla inguruan hartutako irudia da honako hau. Herritarrak, paseatzen zebilela, urrutitik ikusi zuen katagorria, eta haren ondora hurbildu ahala, poste atzean ezkutatu zen animalia. Hantxe egon zen geldi-geldirik, herritarra bertaraino joan zen arte. Normalean, ihes egin ohi dute katagorriek, baina hura ondo ezkutatuta zegoen, nonbait, bere ustez. 🐼📸 **Uztarria**✘

URRIKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Duintasun erakustaldia

EKONOMIA. Pentsiodunek duintasun erakustaldia egin dute berriz ere. Ikaragarria da nolako indarrarekin ari diren pentsioak defendatzen; ez beraienak bakarrik, denon pentsioak baizik, guztion pentsioak baitaude arriskuan gobernuak egindako lapurretak tarteko. Uste dut estatu osoan greba orokor bat egiteko garaia dela. Gobernuak fronte ugari ditu irekita, eta denek batuta, indar handia egin dezakete.



ieltxu caballero



Mendia denentzat

GIZARTEA. Marea Urdinak hainbat gaixotasunen bueltan egiten ari den lana benetan zoriontzekoa eta eskertzekoa da. Familian mugikortasun zailtasunak dituzten kideak dauzkagunontzat egitasmo oso ona da martxan jarri dutena: izan ere, familia askorentzat parez pare ireki dituzte mendira joan ahal izateko ateak, mendia edozein pertsonarentzat eskuragarri egin dute aulkiari esker.



Visca la terra lliure

POLITIKA. Badirudi askatasuna hiztegiko hitz soil bihurtu dela. Lo-tsagarria da gobernuak hartu duen jarrera, bortizkeria eta mendeku makinaria guztia piztuta. Kakanarru hark duela 44 urte "atado y bien atado" utzitako guztiak indar handia du gaur, eta haren fanatikoek nahi duten

guztia egiteko aukera dute, inpunitate osoarekin. Hori guztia gutxi balitz, mass media mertzenarioek martxan dute fanatiko horiei aurpegia garbitzeko kanpaina, faxistei "constitucionalistas" deitzen diete, esaterako. Animo kataluniar guztiei: *visca la terra lliure companys!*

INKESTA

gaztainak jateko
ohiturarik ba al
duzu?

I. Elustondo/A. Izagirre

OLATZ ISASMENDI

49 urte



“Ez zaizkit
gaztainak
gustatzen; sekula
ez ditut jan. Fruitu

lehorrak, oro har, ez zaizkit
gustatzen. Hala ere, iruditzen
zait gaztaina saltzailearen
postuak xarma ematen diola
udazkenari”.

URKO ARRIETA

19 urte



“Asko gustatzen
zaizkit, eta
gaztaina
saltzailearen

postuaren paretik pasatzea
sekulako tentazioa da niretzat.
Aurten oraindik ez naiz joan
erostera, baina ziur erosiko
ditudala”.

PILI ARRUTI

77 urte



“Umeak ginela,
jateko askorik ez
genuen izaten, eta
goseari aurre

egiteko, gaztainak jaten
genituen. Txikitako ohitura hori
tarteko, oraindik ere izugarri
gustatzen zaizkit gaztainak”.

HURRITZ OSTOLAZA

13 urte



“Asko gustatzen
zaizkit; tarteka
erosten ditut.
Normalean,

amonarekin joan ohi naiz
erostera, baina lagunekin ere
joan izan naiz meriendatzeko
gaztaina batzuen bila”.

Bizitzak hil egiten du

Joan zaitezte ogitara, ni ez naiz joango eta, joan esnetara, ni ez naiz egongo; inork bota aurretik nahiago dut neuk irten, atzeko atea erabilita bada ere”. Horrela dio Los Enemigos taldearen *Septiembre* kantak, *La vida mata* diskoan; bai, bizitzak hil egiten du, Josele Santiagoren hitzok dioten moduan. Eguneroko bizitza zama astunegia, eramenezina bihurtzen denekoa da iraila. Baina ekaina izan liteke iraila. Urtarrila ere bai. Edo azaroa. Askorentzat, gehiegirentzat –gutxi batzuk gehiegi baitira–, beti da iraila. Udazkenera daraman hego-haizezko zirimola.

Familiakoak, gertukoak, kezkati, zurrunbiloen nondik norakoak ezin ulerturik. Lagundu nahirik, baina ezin asmatu. Gainerakook ere ez zaituztegu ulertzen, eta gainera, ez dugu ulertzeko ahaleginik egin nahi. Ez zaituztegu ikusi nahi; urrutitik sumatzean, ezikusiarrena egiten dugunak gara. Espaloiz aldatzen garen horiek. Ez dugu konplika-



Imanol Amiano

ziorik nahi; burukominik. Lanpetuegiak gaude, agian. Aitzakiak, nahi dituzuen guztiak. Lagunok –edo izandakook, behintzat–, ezagunok, herritarrok, gizarteak beste lehentasun batzuk dauzkagu, besterik gabe. Gure egunerokotasuna distorsionatzen duzuen pariak zarete. Ikusezinak. Ukiezinak. Deseroso sentiarazten gaituzue askotan, eta horregatik, ez zaituztegu gure artean nahi. Hor konpon. Mundua jasanezina zaizuenean, zuen egonezina gure bihurtzen baita.

Halako batean, ezustean kolpatzen gaituzue, erdiz erdi, hemen zaudetela adierazteko –azken garrasi itoa–, atzeko atetik joan baino lehen: “Dagoeneko iraila da eta ez naiz egongo”, dio Joselek, diozue, entzun nahi duenarentzat. Esan nahi diren hitzak dagoeneko esanda daudenean, ezer gutxi dago gehitzeko. Gainerakook, orduan, burua astintzen dugu, eta geure zurrunbilan murgiltzen gara berriro.*

Gal detzen hasita, zergatik ari da
Bustinzuriko erreba la, pixkanaka,
dendaz eta tabernaz husten? Uztarrria

Hil-kanpaiak

Hil-kanpaiek jo dute Aizarnan, udazkeneko eguerdi isila emeki urratuz. Bost kanpai-hots hiru bider, Irureko Luisaren bakezko eta kemenezko oroitzapena ibarrean zabalduz. Santa Engrazin gora joan da brontzezko uhinen durundia, ortziaren infiniturantz, den guztiaren durundiarekin bat eginez.

Nora joan da, ordea, Luisaren bizia? Ezerez bihurtu ote da? Ezerezetik ezer sortzen ez denez, ezin dut sinetsi baden ezer ezerez bihur daitekeenik. Udazkenez, txorten-hariak adaska-begitik askaturik, haizearekin dantzan kulunkari lurrera datorren hostoa lur bihurtzen da, lurra izerdi, izerdia kimu, hosto, lore, fruitu, eta fruituan gordeta hazi. Fruitua bizidunon elikagai, eta hazia lurrean ernamui. Biziak bizirik jarraituko du agortezineko forma berri miragarrietan. Ezer ez da desagertzen, eraldatzen baizik. Udaberriko miraria udazkenean hasten da, eta udaren betea neguaren hutsean, edo alderantziz: udazkenean uda eta udaberrian negua, biziaren gurgilean dena bat.



Joxe Arregi

Biziaren gurgilean edo, hobeto esan, espiralean, ezer ez baita lehenera itzultzen, ez forma bera inoiz errepikatzen. Lur osoan ez dira bi hosto berdin, ezta bi kanpai-hots berdin ere, hala dirudien arren. Dirudienez, unibertso osoan ez dira bi atomo berdin ere, harrigarrietan harrigarri. Bizidun bakoitza, izaki bakoitza forma desberdin, bakar, berezia da.

Bakar eta berezia, baina ez bereiz edo bakartia. Den oro ororekin konektaturik dago. Diren guztien kide gara denok. Izakide, bizikide, gizakide gara, unibertsoan izan den eta izango den guztiarekin bat, Orotasunean. Sinesten dut Orotasun eta orenen Oroimen bizigarria dela 'Jainkoa'. Jaiotzen dena forma zaharrera hiltzen den bezala, hiltzen dena, bere kontzientzia indibiduala barne, Orotasun, Oroimen edo Kontzientzia unibertsalean jaiotzen dela, unibertso honetan edo beste batean, espazio eta denbora guztiez honago, harago, ez dakit nola. Biziaren arnasa ez dela hiltzen. Hil-kanpaiak bizi-kanpai direla.*

HAU HOLAXEENK



Parranda



Poteoa



Geure buruaz beste bat

A mets zatoz jada nigana”, abesten zuten rockero zaharrek. 05:00ak dira hitzok zirriborratzen ditudanean, eta amets batek esnatuta eseri naiz ordenagailu aurrean. Lo gaudela amets egiteko aukerak ezaba ditzakeen makina bat asmatzearekin egin izan dut amets esna nagoea. Izan ere, gaueko programazioa egonezinek eta beldurrek betetzen dute normalean.

Bere buruaz beste egiten saiatu dela aitortu dit lagun batek gaurko ametsean. Ametsa izan ez balitz, seguruenik, ez nituzke ilara hauek idatziko, isilpean gordeko nuke sentitzen dudana, ulertzen ez dudana. Suizidioa oraindik

estigma eta tabu da, nahiz eta amesgaizto horretatik atera ezinik bizi den gure inguruan hainbat pertsona, lagun eta familia; izan ere, arrazoi ez-naturaletan, lehen heriotza kausa da.

Suizidiora bultza dezakeen eta ekintza horrek ingurukoengan sorrarazten duen sufri-mendua bizi ez duen batek idatzia izaki, erraz-keria izan daiteke artikulu hau. Egia da, baina gizarte bezala nekez egingo diogu aurre erre-alitate horri, gaiaren inguruan hitz egiteko gai ez bagara. Sufrimenduaren inguruan mintzatzeko trebatzen ez bagara, nekez ulertuko ditugu besteen oinazeak, nekez izango gara gureak

partekatzeke eta kudeatzeko gauza. Suizidioa ez da hiltzeko nahia, sufritzeari uzteko beharra baizik. Gertatzen denean denok asaldatzen gara, eta egun batzuetan, pertsona gorai-patzen dugu ekintza kritikatzan dugun bitartean. Dena ulertuko bagenu bezala, izenonoz betetzen ditugu pertsona eta erabakia. Guztia baretzen denean, ordea, bizkarra eman ohi diogu arazoari (eta ondorioz pertsonei) beste kasu batek berriro barrua mugitzen digun arte.

Arazoari begietara begiratzen ausartzen garen bitartean, udazken koloretan “hitaz oroit” zabilatzaten horiei besarkada bana.*



|||||felipe murillo|||

Erotikan Plax!

U dal musika bandako tronpeta-jotzailea da Jon Ibarzabal, eta hari egokitu zaio hil honetan galderei erantzutea.

Nondik datorkizu musika zale-tasuna?

Ez dut erreferente zehatzik izan, baina tronpeta jotzen ikasteko gogoa txikitatik izan dut.

Kalean, frontoian... Herrian ezaguna da zure tronpeta. Zerk egiten du erakargarri?

Originala izateak edo jendearen-tzat ezagunak diren abestiak jotze-ak.

Haizearekin funtzionatzen du tronpetak. Zer behar du Jonek bizitzan ondo funtzionatzeko?

Lana, osasuna eta poztasuna.

Tronpeta entzuteko, ezpainek dardara egin behar dute.

Harreman batean, zerk egin behar du dardara?

Elkar ondo ulertzeak.

Momentu erotikoetan, zer tenpo duzu gustuko?

Ez dut bat zehatzik; momentuan momentukoa, musika obretan bezalaxe.

|||||JON IBARZABAL|||

Adina. 30 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Muntatzailea.



|||||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)|||

|||||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:
Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
Hitzorduak, azaroa: hilaren 6an
(16:00-19:00) eta 16an (10:00-13:00).|||

Soinuarekin edo soinurik gabe?

Musikaria izanda, soinuarekin.

Tronpetaren bidez esan daitekeen gauza kuriosoren bat?

Dena esan daiteke, “maite zaitut” bera ere bai. Norberak bere modua du esandakoa interpretatzeko.

Zer esango zenioke erotismoa berreskuratu nahi duen pertsonari?

Begiak itxi, eta pertsona baten laztan bat, masaje bat irudikatzen has daitekeela.

Zerk ateratzen dizu irribarre bihurri bat?

Nire gustukoa den proposamen batek.

Inspiratzen zaituen musika bat?


Morriconeren musika.

Gau goxo batean behar dituzun hiru elementu?

Konpainia ona izanez gero, beste bi elementuak soberan daude.

Belarri atzean: musu, kokx edo putz?

Tronpeta-jotzailea izanda, putz.*



25 urte, martxan

1994an inauguratu zutenetik, milaka bisitari izan da Burdinbidearen Euskal Museoan. 40 tren zeuden hasieran, eta orain, berriz, 87. 📌 Nora Alberdi 📍 BEM



▲ **UROLAKO TRENAREN TAILERRA.**

36ko gerraren ostean, 60ko hamarkadan, autoen aldeko apustua egin zuten Europan, garraibide publikoak baztertuta. Urte luzez ez zen garraio publikoaren aldeko inbertsiorik egin, eta tren asko zaharkituta gelditu ziren. Urolako trena, adibidez, inauguratu zuteneko bagoiekin eta makinekin izan zen martxan, kendu zuten arte. Irudian, museoko harribitxietako bat, Urolako trena zenaren 1926ko tailer mekanikoaren instalazio originala.

▼ **ONDAREAREN GARRANTZIA.**

Pixkanaka, gizartearen pentsaera aldatzen hasi zen. Tren eta errai berriak erosi zituzten erakundeek, eta ohartu ziren tren zahar haiek historia zutela. 1989an trenen eta materialen inbentarioa egin zuen Juanjo Olaizolak, museoaren gaur egungo zuzendariak. Ondarea ikusita, museoa egitea erabaki zuten. "Txatarreroei eskuetatik kendu genizkien lehen lokomotoreak", dio Olaizolak. Irudian museoan ikusgai dauden Bilboko eta Zaragozako tranbiak.

▲ **GELTOKIA.**

Museoa bi fasetan egin zuten: zati bat 1992an zabaldu zuten, eta 1994an ireki zuten gainerakoa. Museoa inauguratu zutela 25 urte dira, beraz. Urolako trena, berriz, 1926tik 1986ra arte izan zen martxan. Horrenbestez, tren geltokia abandonatuta izan zen hainbat urtez, museoa zabaldu zuten arte. 1926ko otsailaren 22koa da irudia, Azpeitiko tren geltokia inauguratu zuten eguneko.





◀ HAZIZ JOAN DA.

Museoak bete dituen 25 urteen balorazio positiboa egin du Olaizolak: "Herrian nabaritzen da museoaren eragina; asteburuetan jende ugari joaten da, eta museotik herrira ere iristen da jende hori. Bilduma ere babesten eta pixkanaka handitzen joan gara; pentsa, 40 trenekin hasi ginen, eta orain, 87 ditugu". Egun, Euskotreneko lau kideak egiten dute lan museoan, eta boluntario talde bat aritzen da laguntzen. Irudian, 'Espinal' lokomotora (1887), museoko zaharrena.

▶ LASAORAINO.

Museoaren ibilbidean oso urte garrantzitsua izan zen 1998a; izan ere, orduan zabaldu zuten trenbidea Lasaora. Juanjo Olaizolak dioenez, Burdinbidearen Lagunak elkarteko kideek argi zuten trenak erabili egin behar zirela. "Tren bat ez da kontenplazeko, jendea ibiltzeko baizik", aitortu du Olaizolak. 1998an Lasaorako trenbidea ireki zuten egunekoa da irudia.



◀ BISITAK, FILMAK.

Leku askotatik iristen dira bisitariak Burdinbidearen Euskal Museora. Astegunetan, batez ere, taldeak izaten dira bisitan, eta asteburuetan, berriz, familiak. "Bisitariak harrিতuta gelditzen dira, ez baitute espero herri batean halako aberastasuna egoterik". Bestalde, askotan erabili izan dute museoa filmak-eta grabatzeko. Irudian, 'La Buena Nueva' filmaren grabaketako irudia.



▲ **AUKERA BAKARRENETARIKOA, AZPEITIAN.**

Lurrunezko makina batean ibiltzea ez da ohikoa gaur egun. Espainian ez dago aukera handirik –Gijon, Madril eta Teruel dira salbuespenak–, eta Euskal Herrian aukera bakarra Azpeitian eskaintzen da. Britainia Handian, ordea, 800 lurrunezko lokomotora daude martxan, eta 200 museo daude zabalik. Irudia 2019ko urriaren 5ekoa da; izan ere, egun hartan 1965eko Alsthom Diesel lokomotorarekin eta beste lau lurrunezko lau lokomotorarekin –1888ko ‘Zugastietia’, 1898ko ‘Aurrera’, 1920ko ‘Euzkadi’ eta 1913ko ‘Portugal’– osatutako trena jarri zuten martxan Azpeitia eta Lasao arteko trenbidean.



◀ **ETORKIZUNERA BEGIRA.**

Etorkizunera begira jarrita, Olaizolaren nahia da museoaren instalazioak handitzea. Bestalde, azpiegituraren zuzendariak uste du polita izango litzatekeela trena Zestoara edo Zumaiara iristea eta museoa euskal trenbide sarearekin lotzea: “Bisitariak autoz etortzen dira, baina bisitarien mugikortasuna jasangarriagoa izan dadin, ederragoa litzakete haiek tren ez etorriko balira”. Irudian, geltokia museo bilakatzeko goeko hamarkadan egin ziren eraberritze lanak.*

1 999ko azaroa zen. “Gauzak lortzeak ematen du poza”, zioen Joseba Lazkano jesuita ageri zen azalaren titularrak. Uztarria aldizkariaren lehen zenbakia zen hura. Eta egin du euririk ordutik; Uztarria 221. zenbakira iritsi da 2019ko azaroarekin. Ez da bobila Uztarriak kaleratu dituen aldizkariaren kopurua, baina bai horiek argitaratu dituen urteena; izan ere, hil honetan hogeitau urte dira Uztarria Kultur Koordinakundeak kideek aldizkariaren lehen zenbakia kaleratu zutela.

Koordinakundea lehenago, 1998ko martxoaren 3an, sortu zuten hainbat taldek, herriko euskararen, kulturaren eta komunikazioaren egoera iraultzeko asmoz. Eta hain zuzen ere, Hegoaz Blai taldean zebilen sasoi hartan Josu Azpillaga (Azpeitia, 1973). “Uztarria eragileetako taldeak biltzen hasi zenean sartu nintzen saltsan. Koordinakundea sortzeko bileretan parte hartu nuen, eta aldizkariaren aurretik kaleratzen zen berripapera ateratzen hasterako erredakzio taldeko kidea nintzen”.

Euskal Herriko herri aldizkariaren loraldia baino urte batzuk geroago sortu zuten *Uztarria* aldizkaria, eta Azpillagak uste du “asmatu” zela aldizkariaren sorrera moteltzearekin. “Herriko komunikazioaren hutsunea nabarmena zen. Koordinakundea sortu eta lehen bileratik, hurrengo pausoa aldizkaria sortzea izan behar zuela esaten zen, baina ez ziren indarrak aldizkarira soilik bideratu nahi. Izan ere, kulturaren eta euskararen erretortza hutsuak”.



Josu Azpillaga, Oihana Elduaien eta Mailo Oiarzabal. ||| Julene Frantzesena

Beste hogeitau egiteko

Uztarriaren iraganaz eta etorkizunaz hizketan aritu dira Azpillaga, Elduaien eta Oiarzabal, aldizkariaren 20. urteurrena aitzakia hartuta. 📝📷 Julene Frantzesena



Sasoi hartan, *El Diario Vasco*ko Azpeitiko kronista zen Mailo Oiarzabal (Azpeitia, 1971), eta hura utzita, Uztarrian hasi zen lanean 2008an. Dena den, gogoratzen da Uztarraren sorrerarekin. “Orduan ere herri euskalduna zen Azpeitia, baina prentsa euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez zegoen. Asko euskaraz alfabetatu gabeko herritarrak ziren, euskaraz hitz egiten zutenak, baina irakurtzeko zailtasunak zituztenak. Uztarriak balio izan du herritarrek gaztelaniaz ulertzen zuten testua euskaraz ere irakur zezaketela ikusteko”. Badu hori horrela zela ikusarazten duen pasadizo bat urrestildarrak: “*El Diario Vascon* sartzen nituen euskarazko eduki batzuk, eta jendea kexatu ere egin izan zitzaidan. Pentsa, herritar baten deia jasotakoa naiz 07:00etan, euskaraz irakurri nahi bazuen *Egin* erosiko

zukeela esanez. Esan nion egunkari hartan ez zuela euskaraz askorik irakurriko...”

Aldizkaria sortu zuten garaian herrian zegoen beharrez ez zela kontziente azaldu du Uztarrria Komunikazio Taldearen lehendakari Oihana Elduaienek (Azpeitia, 1981). Orain, baina, denboraren joanarekin, euskarazko hedabide bat izatearen beharrez jabetzen dela nabarmendu du: “Euskarari eta informazioari ekarpen handia egin dio Uztarriak”.

Herriko informazioa

Azpeitiko bi milatik gora etxetara iristen da hileroko *Uztarrria* aldizkaria. Elduaienen aburuz, gaiak “modu erakargarri eta errazean” etxeratzen asmatu du herri hedabideak, eta horrek ahalbidetu du herritarrak irakurtzen hasatea eta haien ohiturak aldatzea. “Tresna ga-

rrantzitsua” da haren ustez, eta “gauza askotan” asmatu du: “Herriko gaiak azaleratzen eta eztabaidak sortzen jakin du Uztarriak, ez soilik informatzen. Herri mugimendua sustatzen ere asmatu du”.

Oiarzabalek dioenez, hogeitun urteotan herritar ugari agertu da aldizkarian, modu batean edo bestean. “Zenbaitetan zailtasunak ere izan ditugu gaiak aurkitzerakoan, urte hauek guztietan askotariko gaiak landu direlako. Uztarriak Azpeitiko gai asko, kontu asko jaso ditu, eta jende askori eman dio ahotsa. Anitza izan da eta da, eta hori gustura hartzen du jendeak”. Hark dioenez, aipatzekoa da urte hauek guztietan aldizkarian musutruk kolaboratu duten herritarren zerrenda: “Zeinen lan onak egin dituzten, zer borondate izan duten... Horrek asko janzten du aldizkaria”.

Elduaienek uste du Uztarriak lortu duela “pixka bat denena” izatea: “Baita gorrotatzea ere zenbait kasutan, baina hori kazetaritza onaren seinale da”. Proiektuak herrian duen “zentralitatea” ere aipatu du: “Herri mugimenduarekin eta herritarrekin izan duen harremanak ere eman dio zilegitasuna Uztarriari”.

Eta hala da. Uztarriaren proiektua ez dago ulertzerik webgunerik gabe; izan ere, aldizkariaren ehunka ale banatzen ditu komunikazio taldeak hilero, baina egunero-egunero mila eta milaka bisita izaten ditu *Uztarria.eus*-ek. Aldizkaria sortzen ez, baina webgunea martxan jartzen aitzindaria izan zen Uztarria. 2002ko urtarrilaren 1ean jarri zuten ikusgai Azpeitiko ataria; data hura ondo gogoan du Azpillagak –egun Codesyntax informatika enpresan egiten du lan–. “Oraindik akordatzan naiz non nengoela eman nion webgunea publiko jar-tzeko botoiari [barrez]”. Aldizkariaren maiztasunaren eztabaidari aterabidea emateko balio izan zuen webguneak, haren arabera. “Erreferentzialtasuna lortzeko garrantzitsua izaten da maiztasuna, eta gure aldizkaria hilabetekaria zen... Sarriago kalera-tzeko tentazioa izan genuen, baina ez genuen argi ikusten. Webgunea sortu genuen maiztasunaren beharrari erantzuteko eta aldizkaria egunerokotasunetik urruntzeko”.

Elduaian izan zen *Uztarria.com* atarian lanean aritu zen lehen kazetarietakoa, eta hark dioenez, garai hartan albiste bat edo bi argitaratzen zituzten egunean: “Orduan ezer ez zitzaidan iruditzen albiste... Eta orain, zenbat albiste sartzen dituzte *Uztarria.eus*-en? Eta gaur egungo berehalakotasun hori ere ez genuen”. Azpillagak baditu datuak: “2002ko urtarrilean 51 albiste sartu ziren webgunean, e! Bada zerbait... Orain 250-300 egiten dira hilean, baina ordurako 50 albiste, asko dira”. Oiarzabalen ustez, aldizkarian baino garapen handiagoa egin da webgunean, Interneten lan egiteko era “zeharo” aldatu delako. “Horixe zen webgunea sortzearekin egin genuen gogoetaren funtsa, albistegia indartzearen aldeko apustua egin baikenuen, eta intuizioari tiraka hasi baginere ere, 18 urtera bera da xedea”.

III “Euskarari eta herriko informazioari ekarpen handia egin dio Uztarriaren proiektuak”

OIHANA ELDUAIEN

Uztarriako lehendakaria



Uztarria hedabide erreferentea dela diote hirurek. “Ez herrian bakarrik”, azaldu du Elduaienek. “Nik *Berriako* [han egiten du lan] bileretan ere askotan entzuten dut Uztarriaz aipamena, eta uste dut aitzindari izateak baduela horretan eragina. Argi dagoena da zerbait egin baduzu Uztarriari agertu behar duzula, bestela ez duzu ezer egin [barrez]”. Oiarzabalek ere badu hori baieztatzeko adibide bat: “Immersorekin bidaia batera joan zen herritar batek esan zidan egunero sartzen zela *Uztarria.eus*-era tabletetik. Eta uste dut hori lortzea oso garrantzitsua dela”. Azpillagak azaldu duenez, Uztarriak Interneten erreferentzialtasuna lortu du, eta atariak dituen datuek atentzioa ematen dute komunikabideen munduan. “Zergatik den horrela? Ziurrenik arrazoi asko egongo dira, baina horietako bat jarraikortasuna da. Zerbait egin eta hurrengo egunean sekulako salto kualitatiboa ematea nahi izaten dugu, baina hori nekez lortzen da”.

Uztarria.eus-en sortzaileetakoak dioenez, gainera, pixkanaka “berrikuntzak” egin dituzte webgunean. “Berrikuntza horiei esker hazi da esponenzialki Uztarria”. Elduaienek ere

III “Uztarriak Azpeitiko gai asko, kontu asko jaso ditu, eta jende askori eman dio ahotsa. Anitza izan da eta da”

MAILLO OIARZABAL

Uztarriako langilea

uste du berrikuntzetan asmatu duela hedabideak: “Bere garaian blogak sortu zituen, gero Komunitatea atala... Herriko taldeek-eta aukera dute albisteak idazteko, eta horrek erreferentzialtasuna sortzeko balio du”.

Badira erronkak

Uztarriaren erronka nagusia “etengabe sortzen ari diren joeretara egokitzea” dela uste du komunikazio taldeko lehendakariak. “Uztarriak horretan asmatu izan du, baina ez du erlaxatu behar, berehala aldatzen baitira gauzak”. Horrez gain, diru iturri berriak bilatzea ere erronka potoloa dela uste du Elduaienek, baita Uztarria gaur egun dagoen tokian mantentzea ere.

Azken horri lotuta, Azpillagak gazteen “galdera ikur handi hori” hor dagoela gogorazi du, hedabideek irakurle gazteekin edo gaztetxoekin duten erronka orokorra dela aipatuta. Gazteek Internet kontsumitzeko duten joeraren aldatetan jarri dute arreta hiru lagunek, eta Elduaienek honako galdera hau plazaratu du: “Adinarekin aldatuko al zaie kontsumo ohitura?”. Azpillaga: “Gu ere halakoak al ginen 18 urterekin?”. Elduaienek esan

III “Uztarriaren webgunearen erreferentzialtasunaren arrazoietakoa bat jarraikortasuna da”

JOSU AZPILLAGA

Uztarriaren sortzaileetako

Jauziek elkartuta

Duela sei urte hasi ziren dirt jump kirola praktikatzeko Garmendikamp egokitzen. Orain, bizi-bizirik dagoela diote. Berrikuntzak dituzte helburu. 📝📷 Maialen Etxaniz

O

rain dela sei urte ekin zioten Garmendikamp gunea egokitzeari Azpeitiko hainbat gaztek. Dirt jump kirola praktikatzeko gogoak elkartu zituen, eta grinei izkin egin gabe, lanean hasi ziren beren kabuz. Udalean baimenak eskatuta eta ordu luzez lanean arituta lortu zuten Garmendi auzoan dagoen lur sailari itxura ematea. Dagoeneko lau urte igaro dira hondeamakinak gaur egun Garmendikamp dagoen lekura sartu zirenetik, eta orduz geroztik, ugari izan dira bertatik igaro diren lagunak. Denborarekin, belaualdi aldaketa egon dela uste du Iñigo Garciak (Azpeitia, 1995). Hark ondo ezagutzen ditu proiektuaren hastapenak, eta pozez hartzen ditu Garmendikampera hurbiltzen diren gazte berriak. Horietako bi dira Nora Aranbarri (Azpeitia, 2007) eta Asier Leon (Azpeitia, 2006). Naroa Aranbarrik (Azpeitia, 2003) ere orduak igarotzen ditu bertan. Mendi jaitsierako Euskal Herriko txapelduna da bera, eta hirugarren sailkatu zen Espainiako BTT Jaitciera Txapelketan. Zaletasunak elkartu ditu lau gazteak Garmendikampen.

Geroz eta gehiago dira bizikleta eta kasakoa hartuta Garmendi auzora joaten diren gaztetxoak. Eguraldiak laguntzen duen egunetan, dozenaka lagun elkartzen da jauziak egiteko egokitutako gunean. Askok eta askok dirt jump kirola praktikatzen dute han, beste batzuek jauziekin gozatzen duten bitartean. Denbora motzean proiektua "biziberri-



Adin ezberdinetako dozenaka lagun elkartzen da egunero Garmendikampen. || Maialen Etxaniz

“tzen” ari dela dio Garciak, eta “oso pozik” dago. Izan ere, hark gertutik ezagutu ditu proiektuaren unerik zailenak: “Hastapenak ez ziren errazak izan. Hondeamakinek gure kabuz eginda geneuzkan maldak desitxuratu zituzten, eta horrek burumakur utzi gintuen. Arazoak arazo, lanean jarraitu genuen. Handik hilabete batzuetara proiektua albo batera utzi behar izan genuen, ordea, denbora nahiz baliabide falta tarteko. Hilabete luzez hutsik eta zaindu gabe egon zen Garmendikamp, baina duela hilabete batzuk berriro hasi ginen lur eremua egokitzeko eta erabilgarri jartzeko lanak egiten. Orain inoiz baino jende gehiago ibiltzen da Garmendikampen. Gainera, gaztetxoak gustura ibiltzen daudela ikusteak lanean jarraitzeko gogoia pizten digu, eta horretan gabilta ilusio handiz”.

Auzolana, ezinbestekoa

Dirt jump praktikatzeko guneak herritarren artean “harrera bikaina” duen arren, “betiko arazoekin” jarraitzen dutela diote proiektuaren sustatzaileek.



Garmendikampeko erabiltzaileak dira jauziak egiteko lur eremua txukun mantentzeaz arduratzen direnak. Lanean fin aritzen den ki-deetako bat da Leon, eta hark azaldu duenez, jauziak egiten herritar ugari ibiltzen den arren, gutxi dira lanerako prest agertzen direnak: “Lurra txukun egoten denean, jende ugari ibiltzen da bertan. Baina tontorrek lardasten hasten direnean, jende gutxi animatzen da auzolanera”. Horrekin ados dago Aranbarri. “Gainera, zenbat eta jende gehiagok erabili, orduan eta azkarrago altxatzen da lurra”, azpimarratu du. “Horregatik eskatu ditugu behin eta berriz eremuaren mantenu lanak erraztuko dizkiguten baliabideak”, gaineratu du Garciak.

Lurra hondeamakinekin egonkortzeko eskatu zutenean, beste eskaera batzuk ere egin zituzten udalean. Gogoan dituzte: “Segurtasun neurriak direla eta, kartelak jartzeko eskatu genuen, erabiltzaileek jarraitu beharreko arauen berri emateko: kaskoa janztea beharrezkoa dela, ingurua zaindu behar dela... adierazteko, hain zuzen. Horrez gain, etxola bat eskatu genuen, lurraren mantenu lanak egiteko erabiltzen ditugun tresnak gordetzeko. Hori ez ezik, jauzien eremua hesiz inguratze eta espaloia jartzeko eskaera egin genuen”. Txukuntasanari ematen dioten garrantziari lotuta, zaborrontziak ere nahi dituzte Garmendikampen: “Ontziak jartzea eskatu genuen, herritarrek hondakinak lurrera bota ez ditzaten, gu baikara zaborra jaso behar izaten dugunak”. Denetarik zaborra aurkitzen dutela diote, eta kezkatuta daude. “Jauziak egiten diren lur eremuan edozein mota-tako zaborra agertzen da, beira zatiak, plastikokoak edo txakurren gorotzak, adibidez. Garmendikampera jauziak egitera goazenok segurtasuna bermatuta izan behar dugu, eta lur saila zaborrez beteta badago, ezin dugu kirola lasai praktikatu. Herriko edozein txokotan daude zaborrontziak. Jar ditzatela Garmendikampen ere”.

“Eskatutakoak oraindik iritsi ez diren arren”, lanean jarraitu dutela azpimarratu du Aranbarri: “Geure kabuz egindako lan guztiari esker, gaur egun bizi-bizirik dago Garmendikamp”.

Elkarrengandik ikasten

“Zirrara, adrenalina eta urduritasuna” dira, besteak beste, maldak jaisterakoan sentitzen dutena. Horregatik atsegin dute horrenbeste praktikatzen duten kirola, eta probatu ez dutenek noizbait proba dezaten nahi dute, “bel-durrik gabe”.

Ez dago irakaslerik Garmendikamp gunean. Hara bertaratzen direnek beti dute zer ikasi eta zer irakatsi. Nora Aranbarri argi dio: “Gure artean ez dago konpetentziarik. Talde bat gara, eta elkarri laguntzeko eta ondo pasatzeko gaude hemen. Garmendin elkartzten garen ia gazte guztiok han ikasi dugu jauziak egiten. Behin eta berriz saiatuz ikasten dira gauzak, eta horrela trebatu gara geu ere. Horregatik animatu nahi ditugu Azpeitiko gazteak dirt jump praktikatzera eta Garmendikampera etortzera; ez dezatela lotsarik izan”, dio Leonek. Aranbarriren iritziz, “ederra” izaten da gaztetxoak beren helburuak lortzen ikustea: “Esperientzia apur bat dugunok saiatzen gara hasiberriei laguntzen, jauzi txukunak egiteko gomendioak ematen eta. Gaztetxoak behin eta berriz saiatzen dira, lortzen duten arte. Gainera, guk ere asko ikasten dugu berriekin”.

Garmendikampeko veteranoak mendian ere ibiltzen dira bizikleta jaitsierak egiten. “Inguruko mendietan ibiltzen gara gehienbat. Arauntzan, Izarraitzen, Oñatz aldean, Nuarden... pixkanaka ari gara gure inperioa zabaltzen”, dio Garciak barrez. “Menditik jaistean ohitura dugu Garmendikamp aldera joateko, giroa ikusteko eta. Azkenaldian beti topatzen dugu ume mordoxka bizikletekin jolasean. Sarritan pentsatzen dugu ume horietako batzuk hemendik urte batzuetara agian gurekin ibiliko direla bizikleta jaitsierak egiten mendian”, dio Aranbarri.

Berrikuntzak, jomuga

Garciak jakinarazi duenez, orain dela gutxi Azpeitiko Mendiko Bizikleta Elkarteak sortu dute, Lagun Onak txirridulari elkartearekin hainbat bilera egin ostean. “Elkarte izaerak hainbat onura eskaintzen ditu, eta erakundeak eskaera formalak eta proposamenak egiteko bidea errazten du”, azaldu du azpeitiarak. “Helburu nagusia da ahalik eta azpiegitura txukunenak lortzea kirola duin praktikatzeko jarraitzeko”. Naroa Aranbarri BTT txapelketak jokatu ohi ditu, eta gaztea izanagatik, ugari dira lortu dituen dominak. Entrenatzeko gune bat faltan botatzen duela dio, eta badu proposamen bat. “Badaude Pump Track izeneko asfaltozko pistak. Ez dute mantenu lanik behar, eta primerakoak dira entrenatzeko. Bizikletentzat ez ezik, skatea egiten dutenentzat ere balo dute”.

Egin dituzte eskaerak eta proposamenak erakundeetan, eta horien erantzunaren zain daude. Bitartean, kirolaz gozatzen jarraituko dute ahal eta nahi duten lekuan.✱

Ibaieder: historian murgilduz (eta II)

Baina burdina lortzeko modu berriek –ingelesak aitzindari izan ziren– beherakada galanta ekarri zuten. 1880an lau burdinola bakarrik gelditzen ziren Euskal Herri osoan. Gure bailara umezurtz gelditu zen. Imajinatu, aurreko hiru gizaldietan, auzoetako mugimendua. Bete-beteko. Ola bakoitzak jende ugari beharko zuen. Lantokian batzuk eta besteak ikazkin, basozain, itzain edo peoi lanetan. Krisiak eskualdeko panorama izugarri aldatuko zuen, eta lanik ezean, egoera latza pairatuko zuen inguruko biztanleriak.

Olak alde batera utzita, ibaiaren historian arrantzaren aipua egitea derrigorrezkoa da. Ibaia igarotzen den auzo guztietan tradizio sendoa dago, nahiz eta gaur egun garai bateko grina falta. Arrantza legezkoaz eta isilpekoaz, furtiboaz, alegia, ari natzaizu. Kontu hau, nonbait, ez da gure garaiko jarduera bakarrik. Historian miatuz, irakurri dut Carlos I.na enperadoreak arrantza arautu zuela Ibaiederren eta inguruko ibai zein erreketan, ordenantza bidez. Besteak beste, agindu batek zion San Migel egunetik –irailak 29– Garizumara ezin zitekeela arrantzan egin, eta ezin zela sare itxirik, kare bizirik edo gau arrantzarako argirik erabili. Ordenantza 1552koa da. Pentsa! Maiz, gau arrantza batik bat, dibertimendu gisa hartzen zen. Erritox betetako ekintza izan ohi zen. Ura gogoko ez zutenak, zaintza lanetan errepidean; ganbaran baztertutako arropa zaharrak inguratu; esku-sarea, otarra eta makila luze eta sendoa bilatu, harriak eta bazterrak astintzeko; eta azkenik, eskuargi indartsuaz hornitu. Abuztuko gau bero hartan, andremaixetatik bueltan, otu zitzaigun gau arrantzara irtetea. Hiru lagun. Esku-sareduna trebea zen, baita amuarrainak eskuz harrapatzen ere. Kobazulo baten aurrean, sareak utzi eta uretan erdi etzan zenean, eskuz koba arakatzeko arrain bila, a ze ikuskizuna... Hanka tarteko errete- netik, praka puskatutako zulotxotik, bi 'orga-



||||||| **luis gurrutxaga** |||||

||| Urtegiaren ondoan, azpian, bizi diren biztanleek ura ondoko herriari, Beizamari, eskatu behar izan diote



nu' preziatu eta estimatuak, koskabiloak alegia, doi-doi agertzen zitzaizkion. Eta guk, atzetik, esku-argiarekin izpiak 'helburura' zuzenduz: "Hi, gehiyo etzan, kobazulo barrera ailleatzeko...". Baina, gure irriño disimulatu eta gaiztoen arrazoiak jabetuta, ez zen giro izan han! Erasoka esku-sareak altxatuz eta errekan behera zitu bizian: "Jata akau eingo zaituztet. Urde halakuek".

Ibaiederren izena(k)

Guadiana omen da agertu eta desagertzen den ibaia. Gureari antzekoa gertatzen zaio, baina bere izenarekin. Sorburua Mandubi, Atxabal eta Iazpi magaletan du, eta Matxinentako zubian azaltzen da lehen aldiz Ibaieder hitza, baina Urrestillaraino. Hango irteeran, ordea, izena aldatu egiten du: Urrestilla. Landetara iritsi eta han... beste izen bat: Errezil. "Benoa, izen horrekin jarraituko dik bada azken kilometroan". Ez, ez! Urolarekin Zelai Luzen bat egin baino lehen, Amu parean dagoen zubi berrian, Ibaieder irakurriko duzu berriro. Bitxia, ezta?

Lehen atalean, Ibaieder zein oparoa izan zen azpimarkatzen nuen. Gaur egun ere, bere emankortasuna oso-oso hedatua da. Kontu izan, zenbat udalerrri eta jende hornitzen den bere urari esker: Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Zumaia, Getaria, Zarautz, Aia, Orio... besteak beste. Nahi kontatzea paradoxa potolo-potoloa? Bada, urtegiaren ondoan –azpian– bizi diren biztanleek, ura ondoko herriari, Beizamari, eskatu behar izan diote. Benetan!*

IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA	IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA
Planoen interpretazioa III. Multzoak	25	2019/11/04	SIEMENS OPERATE fresatzeko makina: erremintak eta piezak neurtzeko zikloak	14	2020/01/07
SOLID EDGE II. Multzoak	30	2019/11/11	HEIDENHAIN 530: Programazioa	40	2020/01/27
CAE elementu finituak NX NASTRAN	32	2019/11/18	HEIDENHAIN 530: programazio aurreratua	14	2020/01/27
Autocad	40	2019/11/25	SIEMENS OPERATE Fresatzeko makina: G kodeko programazioa	40	2020/01/27
SOLIDWORKS II. Multzoak	30	2019/11/25	Mantentze lanak eta matxuren zehaztapenak Makinan	16	2019/11/04
NX gainazalak	30	2019/12/02	Hidraulika	24	2019/11/04
CATIA gainazalak	30	2019/12/02	Trantsizioa S7-tik TIA portalera	12	2019/11/04
CAM POWERMILL (5 ardatz 3+2 fresatzeko Makina)	20	2019/11/04	Sistema mekanikoen muntaketa eta konponketa	70	2019/11/11
SIEMENS OPERATE Fresatzeko makina: lagundutako programazioa SHOPMILL	20	2019/11/04	TIA Portal Siemens automata programagarriak 1. maila	40	2019/11/11
SIEMENS Fresaketa: prestaketa eta erabileria	35	2019/11/04	Siemens Step 7 automata programagarriak 2. maila	30	2019/11/19
FANUC fresatzeko makina: prestatzea eta erabiltzea	35	2019/11/04	ABB roboten programazioa 2. maila	28	2019/11/25
Ohiko fresagaiua	80	2019/11/06	TIA Portal Siemens automata programagarriak 2. maila	30	2019/12/03
HEIDENHAIN 530: prestaketa eta mekanizazioa	35	2019/11/18	ABB Roboten abiaraztea	8	2019/12/09
SIEMENS: programazio parametrikoa	15	2019/12/02	Neumatika	24	2019/12/09
HEIDENHAIN 530: erremintak eta piezak neurtzeko zikloak	14	2019/12/09	Mekanizatutako produktua egiaztatzea	30	2019/11/04
HEIDENHAIN 530: 3+2 ardatzen programazioa	14	2020/01/07	Kalibrazio plana	16	2019/11/18

IMH - Azkue auzoa 1 - 20870 Elgoibar - 943 74 82 66 - 943 74 41 32 - www.imh.eus - imhformazioa@imh.eus



Bozkatu

ehbildu

 **Mertxe Aizpurua**

 **Jon Iñarritu**

 **Gorka Elgojarrrieta**

Erabaki

BAIETZ!



XXXVII. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

AZPETIA 2019ko UDAZKENA

EUSKAL ANTZERKIAZ GOZA DEZAGULA!

URRIA

31, OSTEGUNA

SORTZAILE BERRIEN ZIKLOA

ERIKA OLAIZOLA - Pampina

20:00ETAN, DINAMOA SORMEN GUNEAN
ONDORREN, MOKADUA ETA SOLASALDIA

AZAROA

1, OSTIRALA

**HELDUENTZAT
ZALDI URDINA**

ARTEDRAMA
21:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

2, LARUNBATA

HELDUENTZAT

**IZOZTUTAKO HAIZEA BEZALA
TANTAKA**

21:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

3, IGANDEA

**HAUR + HELDUENTZAT
ETXERIK TXIKIENA**

YARLEKU TEATROA
17:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN

NOA UY! UY! UY!

(3-6 URTE BILARTEKONZERTAZ)
PANTARRAI
17:00ETAN, DINAMOA

7, OSTEGUNA

SORTZAILE BERRIEN ZIKLOA

XANTI ACIRREZABALA - SATIRO

20:00ETAN, DINAMOA SORMEN GUNEAN
ONDORREN, MOKADUA ETA SOLASALDIA

8, OSTIRALA

HELDUENTZAT

**BABESLEKU ARROTZAK ETA ANIMALIA
BAKARTIEN HOTSAK**

RUBIK KONPANA
21:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

9, LARUNBATA

HELDUENTZAT

ORLAC-EN ESKUAK

EROMEN PRODUKZIOAK
21:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

10, IGANDEA

HAUR + HELDUENTZAT

GIZON ZORIONTSUAREN ALKANDORA

TEATRO PARADISO
17:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN

11, 12 eta 13

**ESKOLA EDO GAZTETXOEI
ZUZENDURIKO ANTZERKIA**

11:00ETAN ETA 15:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

IRUDIMENAREN JOLASTEN

CORRADO MASACCI-REN TXOTXONGILO

TALEERRA eta ERAKUSKETA

AZARAREN 17IK 17ARTE
BETHARRAI ARETOKA, GAZTETXOIA

14, OSTEGUNA

SORTZAILE BERRIEN ZIKLOA

MAITE AIZPURUA

UMIN... MAMU

20:00ETAN, DINAMOA SORMEN GUNEAN
ONDORREN, MOKADUA ETA SOLASALDIA

15, OSTIRALA

HELDUENTZAT

**ZER GERTATU OTE ZITZAION ANA
GARCIARI?**

FABELLON 6 GAZTE KONPANA
21:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

16, LARUNBATA

HELDUENTZAT

SIMPLICISSIMUS KABARET

TARTEAN TEATROA
21:30EAN, SOREASU ANTZOKIAN

17, IGANDEA

HAUR + HELDUENTZAT

MARI ETA GAILETA FABRIKA

(7-14 URTEKO GAZTETXOENTZAT) - EDOME
17:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN

21, OSTEGUNA

EUSKAL ANTZERKIAREN LEKUA

EGUN OSOZ, SANGUSTIN KULTURGUNEAN ETA
DINAMOA SORMEN GUNEAN

ESTRENALDIA

SORTZAILE BERRIEN ZIKLOA

ESTI CURIEL - 35 herts

20:00ETAN, DINAMOA SORMEN GUNEAN
ONDORREN, MOKADUA ETA SOLASALDIA

22, OSTIRALA

ANTZERKI ALTERNATIBOIA

ERANITZEN GAITUZTEN HITZAK

HORMAN POSTER
20:00ETAK 21:15ETARA, LLINTX BELETARAKOA
21:30EAN, GAZTETXOIA

23, LARUNBATA

XXXVII. EUSKAL ANTZERKI

TOPAKETEN AMAJERAKO

IKUSKIZUNA

LAPUR MINAK

CIATORNADO
20:00ETAN,
AZPETIKO ALDE ZAHARRAN

ESTRENALDIA

ESTRENALDIA

HITZ GEZIDUNAK

	Ugaztun handi	▼	Egintza, egitea	▼	Egun guztietan	▼	... itzuli, on bihurtu	▼	Gizon izena
	Irekidura		Lizarrako ibaia		Ligaren erdian		Planeta bat		
	Deitura	▶							
	Zegoen								
Zerbaiten luzagarri	▼	Toka, zuen	▶			Bare, lasai	▶		
Izena		Lihorearen hazi				Marokoko hiriburua			
				Pl., garraio mota	▶				
				Dardara					
Ohorezko hitz emate	▶			Emakume izena	▶				Bokal biribila
Leku hartan				Lur ilunaren kolore	▼				... edo zart, erabaki!
			Bukatu da	▶				Azkenekoa	▶
			Presio unitate	▼				Txakurra	
Itsas krabarroka	▶					Bokala	▶	Zangoaren zati	▼
Lizarrako herritarra						Ergatiboa-ren marka		Lehen biak	
Neureak	▶								
							Elkartu	▶	

Egilea: Luma

* Pilotari azpeitiarra

SUDOKUA

	3		5	1				
		5			7	9		6
8				2				
					3			5
	8	9				7	6	
5			1					
				3				8
9		2	8			5		
				5	4		1	

|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: HITZ GURUTZATUAK|||||

HITZ GURUTZATUAK

Ezker-eskuin

1. Gure herriko kulturgunea. 2. Bakartu, bakandu. Italiako ibaia. 3. Naizen honek. Urteko 7. hilabete. 4. Ekialde Hurbileko Sultanerria. Diruzko zigorra. 5. Lehenengo pertsona. Zaunka. 6. Argirik edo argitasunik gabea. Baratxuriaren buru edo laranja eta antzeko fruituak banaturik dauden zati bakoitza. 7. Ipar Afrikako estatua. Kontsonantea. Bokala. 8. Oso ezaguna da mundu osoan lurralde hartako magoa. Mina adierazteko hitza. Adi ezazu! 9. Gipuzkoako udalerrria. Behatokia. 10. Bainugelako ontzia. ... egin, enpo egin.

Goitik behera

1. Esanahi bereko hitzak. 2. Izaki bizidunek, ingurutik harturiko gai bat beren gorputzeko gai edo materia bihurtze. 3. Emakume bati hika. Oinarrizko edari. Non kasuaren atzizkia. 4. Zenbait galderatan erabiltzen dugun partikula. Oso-oso txikia. Potasioa balio du. 5. Egunaren zati. Haiek ba... hori, badute horren berri. 6. Abandonatua. Bokal biribila. Kanpo, landa. 7. Kartsua, lehia biziz betea. Edo. 8. Kontsonantea. Erdialdeko Europako estatu itsaso gabea. 9. Ezarria, jarria. Arrazoi, zergatiko. 10. Zer moduz? Zelaiak, ordekak.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2								■		
3				■						
4					■					
5			■							■
6						■				
7							■		■	
8			■			■				
9				■						
10								■		

|||HITZ GURUTZATUEN SOLUZIOAK
 BIDALTZEKO EPEA. Azaroak 25 (astelehena) |||NORABIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara |||IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da. Hitz gurutzatuak zuzen osatu ondoren, moztu denborapasa eta gutunazal batean bidali, edo atera argazkia eta posta elektronikoz bidali.

|||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

U	T	A	B	●	K	A	E	R	I	N	●
A	R	A	T	A	R	A	R	A	Z	L	I
N	O	●	A	●	A	R	B	A	K	●	●
●	Z	●	O	B	A	K	A	●	N	A	H
O	●	O	R	A	Z	I	●	N	I	Z	●
K	A	N	E	N	T	R	●	N	E	L	J
E	R	A	N	●	N	A	I	Z	●	L	●
N	E	N	I	G	I	G	E	●			
E	N	E	I	G	I	K	E	I	R	E	I
●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●

SUDOKUA

2	3	6	5	1	9	8	7	4		
4	1	5	3	8	7	9	2	6		
8	9	7	4	2	6	3	5	1		
7	2	4	6	9	3	1	8	5		
1	8	9	2	4	5	7	6	3		
5	6	3	1	7	8	2	4	9		
6	5	1	7	3	2	4	9	8		
9	4	2	8	6	1	5	3	7		
3	7	8	9	5	4	6	1	2		

|||UZTARRIAREN URRIKO LEHIAKETA|||||

IRABAZLEA



Jaione Uzin
 Uztarrria Komunikazio Taldeko bazkidea da aldizkariko 200. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.




**URDAIAZPIKO,
 HESTEBETEAk eta GAZTAK**

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOIA



Eñaut: 656 79 14 19
 Oier: 618 24 01 73
 kutxillo@gmail.com
 Damazo Azkue 6
 AZPEITIA


69 urte musikari emanak

Joan zen urriaren 8an hil zen Iñaki Alberdi Udal Musika Bandako klarinete-jotzailea. 84 urte zituen, eta 69 urtez izan zen bandako kidea. Azken agurra musikak lagunduta eman zioten.  Erredakzioa

Urriaren 8an eman zuen aske hatsa Iñaki Alberdi bandako klarinete-jotzaileak, 84 urterekin. Azpeitiarra 69 urtez izan zen Udal Musika Bandako kidea, eta behin baino gehiagotan taldea zuzendutakoa ere bazen. Hil arte izan da bandako kidea. Gainera, Zestoako Bandarekin ere jotzen zuen. Musika Bandak bi omenaldi egin zizkion Alberdiri, bere lan eskergatik: 1998an eta 2015ean.


Txikitatik musikazalea izan zen Alberdi, hala adierazi zuen 2005eko otsailean Uztarriak egindako elkarrizketa batean. Pako Gurrutxaga nuarbetarra Udal Musika Bandaren zuzendari zela hasi zen bandan jotzen Alberdi, eta Jose Maria Altuna, Jose Luis Frantsesena, eta azken urtetan, Unai Frantsesena zuzendariekin aritu zen. Bandako zuzendari kargua ere hartu zuen behin baino gehiagotan. Altunak zuzendaritza lehen aldiz hartu zuenean, 1959an, haren laguntzaile lanak



Iñaki Alberdi artxiboko irudi batean.  Uztarria

egiten zituen Alberdik. 1960ko hamarkadan krisi bat baino gehiago ezagutu zituen bandak, desegin eta berregin ibili zen taldea, eta sasoi hartan hartu zuen lehen aldiz zuzendaritza musikari hil berriak, 1962an eta 1963an; 1972an, banda berriro osatu zutenean, bera hasi zen zuzendari, eta 1990eko hamarkadan ere hartu zuen tarte batean Altunaren tokia, hura baja hartuta zegoelako. Jose Luis Frantsesenarekin, berriz, zuzendariorde izan zen Al-

berdi; Frantsesena ezin zuen, berak zuzentzen zuen banda, eta bandaren Akademian ere laguntzen zion, musikari gazteak trebatzen.

Gustatuko litzaiokeen moduan eman zioten azken agurra Alberdiri hilaren 10ean: musikaz lagunduta. Gorpuaren aurretik joan ziren musikariak Soreasuko Sebastian Donearen parrokiara, eta han, Iñaki Alberdi *martxa* jo zuten. Hileta amaitzean, ere bi pieza jo zituzten hainbat musikarik. 

EFEMERIDEAK

1581

Utzitako haurra. Herriak hazi zuen utzitako haur bat Madalena ermitako serorari ematea erabaki zuten, hark zaindu zezan.

1989

Egoitza berria. Udal Liburutegiak egoitza berria estreinatu zuen: Enparan dorretxean.

2002

Eskultura berria. Antonio Oteizaren 'Burdina lantzen' eskultura inauguratu zuten Landetako biribilgunean.

 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.


Herria historian zehar liburua.

 Egilea: Imanol Elias Odriozola.

 Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea. 

BIDEOAK



Pablo Sorraluze eskultorea. 



KIMU BAT
GARDEN

Animaliontzako denda berria

Gure etxeko lagun
iletsu, lumadun eta
ezkatadunentzako
eskaintza zabala!

Urrestilla bidea, z/g. AZPEITIA

Estresaren eraginak JUAN HIDALGO pintorea

Estresak zerikusi handia du jaten dugun moduarekin. Neurritz kanpoko estresarekin, energia asko kontsumitzen du gorputzak, eta gantz eta azukre asko dituzten elikagaiak jateko gogoaz pizten du. Estresak eraginda jaten dugunean, antsietateagatik jaten dugula diogu –garaiotako arazo ohikoena–; gehiegi eta azkar, egokienak ez diren elikagaiak kontsumituz.

Identifikatzen al zara egoera horrekin? Gurasoa zara eta etxetik kanpo lan egiten duzu. Goizean goiz jaiki, familiarentzat gosaria prestatu, gosalduta txatu eta presaka zoaz lanera. Kotxea hartu, eta egunero bezala, zure buruari agintzen diozu hurrengoan lehenago jaikiko zarela (beti presaka). Egun gogorra izan ostean, etxera iristen zara, presaka eta neka-neka eginda. Erosketak egiteko denborarik ez duzu izan, kuzinatze gogoak auzoan, eta gehienetan bezala, inprobisatzea tokatzen zaizu. Hori bai, bihar jango ez bazenu bezala, amairuan dituzun galletak, txokolatea eta erosi duzun ogi barraren erdia jan dituzu konturatu gabe; eta hala ere, afaritan inork ez dizu antzeman...

Egoera ezaguna baduzu, estresa bideratzeko aukerak bilatzeko komeni zaizu. Jatorduen planifikazioa hobetu, jaten duzun horretan arreta jarri, eta gogoratu, kirola lagungarria dela estresa bideratzeko. Ei, eta arreta jarri egiten duzun horretan!*



aitziber aizpuru



1. Lanbidea aldatu al da hasi zinenetik?

Bai. Laster herriko jenderik ez da ariko lan honetan.

2. Kolore neutroak ala biziak?

Pastel koloreak aukeratzen ditu jendeak, batik bat. Zuri hilak modan daude.

3. Etxeko paretan ez zenuke inoiz jarriko...

Gaur egun, gotelea.

4. Betirako joan al da gotelea?

Uste dut itzuliko dela.

5. Eta papera, bueltan al da?

Bai, baina paretan solteetan

jartzeko, agian, garestia da eta.

6. "Geuk egingo dugu, pintorea garestia da".

Aukera hori egiten dute askok, bai.

7. Buzo berria...

Hiruzpalau hilean behin.*

Mailo Oiarzabal

Ekain
ALBAITARI KLINIKA
Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Larrietan: 943 15 16 40

ostadar optika
OPTIKAS - OPTOMETRIKAS
Jose de Arretxe, 17
Tel. 943-810654
AZPEITIA
Bibi Oado, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA
Tel.: 943 81 47 12

Alar
merzeria
Loiolako Iazulo Hiribidea, 9
Tel: 688 81 87 78

LAU
NEUMATIKOAK
PNEUMATIKOAK - MEKANIKA AZKARRA
943 053056 (leioa kalea 30, 20730 Azpeitia)

uba
ENBROGATZITZA
Abeltzaintza
Fiskala
Laguntza
Sententziak
Gestioi lanak
Finantza administrazioa
Gestioa inmobiliarioa
Tel. 943 157 420 Fax: 943 157 374
Egoitza: Kalea, 41. 1. solairua. 20730 Azpeitia

KIRURI
K
JATETXE
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Telefonoa: 943 81 56 08
Faxa: 943 15 03 62

adi
ARTE ETA
DISEÑU
ESKOLA
ELKARTEA
Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00
Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
Talia 19:30 - 20:00
Jose Arretxe kalea, 3
943 81 28 08
aribadburua@gmail.com
Matrikula arte osoan zabalik

IRENE ALTUNA
ORAZENDA
Loiola Bidea, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunacenda.com

EDURNE AGIRRE

Euskal Wikilarien Elkarteko administraria

“Euskaldun gehienon gailuak erdaraz daude”

Lanik, zereginik eta asmorik ez zaio falta Euskarazko Wikipediaren bueltan sortutako elkarteari. Horietako batzuk azaldu ditu Agirrek. ✉ Mailo Oiarzabal 🗨️ Aiora Mujika

Betiko entziklopedien liburukote potoloak hauts artera kondenuatu ditu Wikipediak, Interneteko eduki askeko entziklopediak. Euskarak badu bere tokia Wikipedian eta horretan ardura handia du Euskal Wikilarien Elkarteak. Duela bi urte hasi zen elkartean lanean Edurne Agirre eta “osasuntsu” ikusten du azpeitiarrak Wikipediako euskal komunitatea.

Zer da Euskal Wikilarien Elkarteak?

Boluntarioak ibiltzen ziren Euskarazko Wikipedia elikatzen, idazten eta ekarpenak egiten, modu indibidualen. Boluntario horietako batzuek sortu zuten elkarteak: interes komuna zuten horren bueltan elkartzeko eta indarrak

batzeko, alde batetik; eta egitasmo berriak aurrera ateratzeko, bestetik. 2016an sortu zuten elkarteak. Hasieran, gauza gutxi egiten zituzten. Eusko Jaurilaritzarekin hezkuntza proiektua garatzeko hitzarmena egin eta dirulaguntza lortu zutenean, lan bolumena asko handitu zitzaizen. Konturatu ziren boluntarioekin bakarrik ezin zituztela proiektuak aurrera atera eta lantalde bat sortu zuten.

Zenbat kide ditu elkarteak? Eta zenbat lantaldeak?

Momentu honetan, 32-33 kide izango dira. Elkarteak guztiz irekia da, eta gure webgunean aurkituko du nahi duenak bazkide egiteko aukera. Langileak, berriz, hiru gara, eta hezkuntza proiektua

|||DATUAK|||||

|||**Jai**o. 1993ko uztailaren 31n.

|||**Herria**. Azpeitia. |||**Bizi tokia**. Donostia. |||**Lanbidea**. Euskal Wikilarien Elkarteko administraria.

gauzatzea da, nagusiki, gure eginkizuna.

Zer da hezkuntza proiektua eta nola ari zarete gauzatzen?

Nirea administrazio lana da, dirulaguntzak kudeatzea dagokit. Nire bi lankideak gehien bat unibertsitateetara joaten dira, ikasleekin artikulua sortak lantzerako. Ikasleek, beren ikasketa zerrendan landu behar dituzten gaiak erabiltzen dituzte Wikipediarako artikulua sortzeko. Ikasleek lana paperean eman eta gero lan hori tiradera batean gorde beharrean,

irakaslearekin adosten dute lan hori Wikipediarako idaztea. Batzuetan, ebaluaketa sisteman sartuta dago; beste batzuetan, puntu gehigarriak ematen ditu; eta beste batzuetan, derrigorra dute ikasleek Wikipediarako lanak idaztea. Irakasle bakoitzarekin kudeatzen da gaitegia, nola landu nahi duen edo nola ez. Nire lankideek laguntza teknikoak eskaintzen diete. Eusko Jaurilaritzarekin Euskal Curriculumuma oinarri hartuta sortu genuen artikulua zerrenda bat dugu; laster iritsiko da zerrenda bi mila artikulura. Gure helburua da artikulua horiek ahalik eta ondoen egotea; zenbat eta ikasle gehiago idatzi horri buruz, zenbat eta iragazki gehiago pasatzen duten edukiek, hobeto.



Zer jasotzen du jaurlaritzarekin duzuen hitzarmenak?

12 eta 16 urte arteko ikasleek behar dituzten edukiak kalitatezkoak izatea, hori da hitzarmena egiterakoan ezarri zen hasierako helburua; mila artikulua egitea zen hasierako helburua, baina dagoeneko bi milara iritsi gara. Lehendik zeudenak zuzendu, falta direnak sortu, eta sortzen diren horiek ulergarriak eta didaktikoak izatea; hori da, laburtzeko, egiten den lana. Bi urteotan 2.500 bat ikasle ibili dira artikulua sortzen, eta guztien artean Euskarazko Wikipedian dagoen edukiaren %5 sortu dute; bada zerbaite. Horrez gain, iaz Txikipedia egitasmoa jarri genuen martxan. Hezkuntza proiektuan sartzen diren

adin tartekoek ez ezik, ikusten genuen txikiagoek ere kontsultatzen zutela Wikipedia, baina zailtasunak zituztela aurkitzen zituzten edukiak ulertzeko. Horregatik sortu dugu Txikipedia, eta Euskarazko Wikipedian txertatu dugu. Momentu honetan ia bi mila artikulua dauka Txikipedia,

Zer beste egitasmo dituzue esku artean elkartean?

Hezkuntza proiektua da gaur egun elkartearen zutarr nagusia, zalantzarik gabe, eta dedikazio gehien eskatzen diguna. Gero, elkarteko boluntarioek badituzte martxan beste egitasmo batzuk ere. Bestalde, joan den apirilean nazioarteko biltzar bat egin genuen, mundu mailan gure antzeko lanetan dabilen jendea, hezkun-

tza eta Wikipedia lantzen dituen, elkarteko. 50 herrialdetatik etorritako 120 bat lagun elkartu ginen Donostian. Aurtengo erroka nagusietako bat izan da komunitatea indartzeko asmoz egindako biltzar hori.

Wikipedia da informazio iturri erabilienetakoa gaur egun. Euskaraz ere bai?

Bai. Interneten bilaketa bat egiten duzunean, agertzen diren emaitzen artean, lehenena ez bada, hiru lehenetako bat izango da Wikipediaren gai horren gaineko sarrera. Informazioa bilatzerakoan, beraz, gunerik kontsultatuen delako esan dezakegu, baita euskaraz ere. Hala ere, kontuan hartzen badugu euskaldun gehienon gailuak, ordenagailuak zein mugikorrak, erdaraz konfiguratu daudela, bisita pila bat galtzen dira, argi dago. Horren adibide nabarmena da *Herri txiki, infernu handi* saioarekin gertatzen dena: saio bakoitzean agertzen den herriaren izena hiru aldiz gehiago kontsultatzen da gaztelaniazko Wikipedian, euskarazko baino. Eta saioa euskaraz da eta hori ikusten ari den jendea euskalduna da. Argi dago jende horrek kontsumituko lituzkeela euskarazko edukiak; baina gailuak erdaraz badituzte, horiek eskainiko dieten lehen aukera erdarazko Wikipediarena da, eta ez euskarazkoarena.

Garrantzitsua da, beraz, euskaldunok gailuen hizkuntzen konfigurazioan arreta jartzea?

“Wikipedia da euskaraz dauden webguneen artean kontsultatuena”

“Hezkuntza proiektua da gaur egun elkartearen zutarr nagusia”

Bai, dudarik gabe. Euskarazko edukiak kontsumitzea nahi badugu, bilaketetan aurreneko emaitzak euskarazkoak izatea nahi badugu, geu gara horren aldeko hautua egin dezakegunak: gailuak euskaraz konfiguratzeko baditugu, euskarazko emaitzak agertuko zaizkigu lehen tokietan.

Gailua erdaraz konfiguratu badago, Euskarazko Wikipediaren emaitzak agertu ere ez dira egingo?

Bilatu duzun artikulua hori euskaraz soilik baldin badago, bai, noski. Baina, adibidez, bilatzailean herri baten izena jartzen baduzu, eta gailua ez badaukazu euskaraz konfiguratu, erdarazko emaitza azalduko zaizu; barrura sartutakoan egingo duzu, agian, hizkuntzaz aldatu eta euskarazko sarrera irakurtzeko hautua.

Zenbat artikulua ditu Euskarazko Wikipediak?

Egunero aldatuz doan datua da hori. Uneotan, 340 mila artikulua gora daude.

Eta zenbat bisita?

Eguneko 100.000 inguru.

Zenbaki onak al dira?

Bai. Euskaraz dauden webguneen artean kontsultatuena da Wikipedia. Gaur egun euskara 29. hizkuntza da Wikipedian, eduki kopuruari erreparatuta. Turkierak eta malaisiarrek aurrea hartuko digute laister, eta 31. tokian geldituko gara. Eta munduko hizkuntzen mapan euskara ez da, inondik ere, 31.na. Alde horretatik, beraz, balorazioa positiboa da. Dena den, badakigu zenbaki horiek askoz handiagoak izango liritekeela, aipatu dugun gailuen hizkuntzen konfigurazioaren kontua aldatuko balitz. Nabarmenezkoa da, era berean, bisita horien guztien artean kopuru handi bat ikasleek eginak direla. Badakigu ikasleek asko kontsultatzen dutela Euskarazko Wikipedia, eta horregatik ematen diogu garrantzi berezia haiek kontsultatzen dituzten artikulua kalitatezkoak izateari. Jaurlaritzak ere kezka bera zuen, eta hortik etorri zen hitzarmena.*

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ekoetxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (AZAROA)

1-2-3-7-19-26
Alberdi (Azpeitia).
943815974

6-13-16-17-22-27
Jacome (Azpeitia).
943080258

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Azaroaren 27an izango
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natul euskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA || Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA || Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste egunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpokoak: ekaina arte itxita KIROLDEGIA || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA || Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 || Larunbata: 09:00-13:00 || Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



ARRATSALDEZ IREKITA.

Astelehenetik ostiralera, 08:30etik
14:30era eta 16:30etik 20:00etara izango
da zabalik Correosek Loiolako Inazio
Hiribidean duen bulegoa. Zapatuetan,
goizez irekiko dute, 09:30etik 13:00etara.

5-9-10-15-21-28
Arrieta (Azpeitia).
943811274

GAUEZ, URTE OSOAN
Arrieta (Azpeitia).
943811274

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegia osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

ALVARO MARTIN

San Petersburgo (Errusia)

“oso gogorra eta bakartia da Errusiako negua”

Finlandiara joan zen lehenik Martin, eta egun, Errusia du bizileku. Ez daki zein izango den bere hurrengo geltokia; ez zaio planik egitea gustatzen. 📌 **Ihintza Elustondo**

Nolatan alde egin zenuen Azpeititik?

Magisteritza ikasi nuen, eta lanik bilatu ezinda eman nituen bi urte. Pentsatu nuen kanpora joan beharko nuela, eta 2013an Finlandiara joan nintzen, umezain lanak egitera. Sei hilabete egin nituen han, eta Azpeitira itzultzean, argi nuen: neure kabuz finlandiera ikasten hasi nintzen hara itzultzeko.

Noiz itzuli zinen?

2015ean joan nintzen berriro, han gelditzeako. Landetxe batean hasi nintzen lanean, eta lanaren truke, etxea eta jatekoa eman zizkidaten. Ondoren, postari lanetan hasi nintzen Helsinkin; hiru urte eman nituen lan horretan.

Zer egin zenuen gero?

Irakasle izateko har hori nuen barruan, eta saiatzea erabaki nuen. San Petersburgora bidaiatu nuen behin, eta han jakin nuen herri-tar askok gaztelania ikasteko ohitura zutela. Galdetzen hasi nintzen, eta orain, gaztelania-ko irakaslea naiz San Petersburgon.

Ez al zara bakarrik sentitzen halako hiri handi batean?

Finlandian ohitu nintzen bakarrik ibiltzera,

eta nahiko ondo moldatzen naiz bakarrik. Dena den, bidean jende asko ezagutu dut.

Zer esaten dizu jendeak?

Bakarrik kanpoan ibilita ez al naizen beldurtzen galdetzen didate. Niretzat okerragoa da Azpeitian ezer egin gabe gelditzea.

Gustura al zaude San Petersburgon?

Bai, oso gustura. Azpeitiko bizimodua ezagutzen dut, eta beti egiten dituzu antzeko gauzak. Kanpoan bizita, berriz, leku eta jende berria ezagutzen duzu. Gustatzen zait hori.

Zer da Errusian bizitzearen alderik gogorrena?

Oso gogorra eta bakartia da hango negua. Hotz eta ilun egiten du, eta inor ez da ateratzen kalera.

Nola egiten diozu horri aurre?

Orain, neure kasa errusiera ikasten ari naiz. Baina sei hilabete etxean ezingo nituzke igaro, eta bidaiatzeko aprobetxatzen dut.

Ez al duzu faltan sumatzen Azpeitia?

Bai, horregatik itzultzen naiz tarteka.

Aurrera begira, zein dira zure planak?

Zaila da hori esatea, inoiz ez baitut jakiten zer egingo dudana.*



1. Martin, duela gutxi Azpeitian. 2. Azpeitiarra San Petersburgon. 3. Stockholmeko irudia.

3.614 kilometrora dago San Petersburgo.



Aktibismoa

Eta aktibismoa goizean goizago ohea egitetik hasten dela esan diot. Esaten diot behin eta berriz eta askotan. Baina bera ez da nire tipo honetako aktibista, beste klase batekoa den ere ez dakit oraindik, aktibista, alegia, telefonoaren aktibista porrokatua ez bada, behintzat. Badakizue. Egun osoa telefono teklatuan jo eta ke. Lagunekin. Omen. Beti lagunekin. Gurasoekin ez beste inorekin egun osoa, alegia.

Aktibismoa. Harrapazank haren aktibismoa. Telefono teklatuan, edo ordenagailuan. Lau eskuetara estudiatzen du. Edo lau begietara. Bi ditu liburu, koaderno eta institutuko lanetan, eta beste bi telefono edo ordenagailuan. Nota altuak nola ateratzen dituen ere ez dakit. Ni baino azkarragoa da horretan. Gaur goizean, ordenagailua lurretik jasotzen hasi naizenean, gailuaren azpian liburua zuela ikusi dut. *Lurraren zutarriak*, eman dezagun, titulua. Follet. Eta pentsatu dut lurraren zutarriak ez baina ordenagailuaren zutarriak izan zitekeela liburuaren izena, ordenagailuari lurretik eusten bezala dago eta.

Aktibismoa. Azterketa astea du institutuan. Egutero du zer edo zer, azterketa matrakaren bat. Badakizue, egutero dugu zer edo zer, ama etxean ez edo atte kanpoan. Eta biologia, eta matematikak, eta frantseza, eta gaztelania, Tormesko itsu-mutila letu behar, guk orain dela ia 50 urte leitu genuen moduan. Mundua aldatu dela esango dute, eta aldatu da, baina ez gauza guztiak, horratik. Ez eskola, alajaungoikoa. Eta euskara azterketa ere bai, baina hemen ez du ezer leitu beharrik. Historia jakin behar du. Bera-ri guztiz arrotzak zaizkion izenak jakin behar ditu, guk garai batean ikasi genituenak, ikasi behar ditu: Etxepare, Axular, Lazarraga, Joanes Etxeberri Sarakoa, Oihenart... Ezer leitzetik libre da, ezer kantatzetik zigortua. Garaziko herria benedika dadila. Eus-



|||||||miel a. elustondo||||

|||Literatura likidatuz
hizkuntza bera akabatuko
dute, akabatzen ari dira,
erritmo bizian

kara, jalgi hadi plazara. Euskaraldia egingo dute gero, Barrua hustua euskaraldia.

Adio euskara

Lehenago batean euskaldun berri batek Bilbon esan zidana. Euskaraldia, euskaraz hitz egiteko, baina zertaz hitz egin, mamiz hustu badugu euskara. Egunen batean PNVren kontra dauzkagun gauza guztien zerrenda egin behar dut. Eta behiaren karena baino luzeagoa izango dela ez dudarik egin. Zerrenda, alegia. Eta euskara irakasleak esan die mapa bat jarriko diela, Euskal Herrikoa, hala ere, eta puntuak seinalatuko dizkiela bertan. Ikasleek, puntu haiek adierazten dituzten herriak izendatu beharko dituzte, eta bertan bizi izandako, lan egindako idazlearen izena eman beharko dutela. Ez dira asko ere, esan dut: Etxepare, Axular, Joanes Etxeberri, Lazarraga, Oihenart... Eta horrela, XVI. eta XVII. mendeetako literatura likidatuko dute. Eta uste dut horixe dela hitza, likidatu, eta literatura likidatuz hizkuntza bera akabatuko dute, akabatzen ari dira, erritmo bizian. Adio euskara, adio liburuak, adio bertsoa, adio dantza, adio antzerkia, adio kantua, adio gure sus-traiak. Ongi etorri inperialismoa, gure barrun-beetara barruraino sartua. Aktibismoa.✘



TiEN21 ESNAOLA


ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943 08 03 55 · esnaelek@outlook.com


VIETNAM
CAMBODIA

02/23TIK 03/08RA



JORDANIA
JERUSALEN
ASTE SANTUAN

IRAN
ASTE SANTUAN



POLONIA
EKAINAREN 21TIK 28RA

SARDINIA
FINLANDIA
EKAINEAN ETA ABUZTUAN



2 0 2 0 I R T E E R A K

maitelazkano.com



943810673 mlazkano@halcon-viajes.es

Halcon
bidaiak